

# Kontzeju

www.ohotzi.eus



Herriak Ohotzi



@herriakohotzi



Ohotzi.eus



ohotzi.eus

DEGIK

Ohotziko Udal aldizkaria | 2015eko Azaroa | 255. zenbakia



## 45 URTE

Ohotz Dantza taldeak



UDAL KOMUNIKABIDEEN SAREA



# UDAL BOLETINA

*ez duzula jasotzen?*

*Martxotik dagoeneko martxan da Oñatiko Udal Boletina. Ostiralero, herriko albiste eta agenda deialdiak DOAN, zure posta elektronikoan!*



Boletina (Egin gaituz harpidedun hemen)  
[www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak](http://www.oñati.eus/eu/udal-zerbitzuak/udal-komunikabideak)



Oñati Irratia  
FM 107.4 edo  
[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)



Facebook  
Berbia Oñati



Twitter  
@BerbiaOñati

[www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)

# OÑATZ, 45 urte dantzari



Zubillagako Izarrak taldea 1970eko Haurren Egunean (Udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsa)



Oñatz Dantza Taldearen 45. urtemuga ospatzeko hainbat ekitaldi egingo dira azaroaren 14tik 21era

**B**elaunaldi ezberdinetako herritar askoren lanari eta konpromisoari esker, Oñatz Dantza Taldeak bere bidea egiten jarraitzen du euskal dantzekiko maitasuna transmitituz belaunaldiz belaunaldi.

Aurten 45 urte betetzen ditu Oñatzek, eta dantzari kopuruari erreparatuz behintzat, sendo eta osasuntsu, ia 400 dantzariarekin, (65 nagusiak, eta 300dik gora gaztetxoak).

Kopuru oso polita da, batez ere kontuan hartuta inguruko beste herri askotan dantza taldeak desagertuz joan direla. Debagoiena eskualdean bertan, Oñatikoaz gain, Antzuola eta Arrasateko taldeak bakarrik daude.

Poztekoa da, beraz, Oñatzek 45 urte betetzea, bizirik eta osasuntsu. Hori ospatzeko, hainbat ekitaldi antolatutuzte azaroaren 14tik 21era (*ikus egitaraua 5. orrian*). Aukera polita izango da hainbeste urtez Oñatzen alde aritu diren eta ari diren herritarren lana esker-tu eta txalotzeko, eta modu batera edo bestera familia handi honetako kide izandakoak elkartzeko jai giroan.

## OÑATZ DANTZA TALDEAREN SORRERA

Oñatz Dantza Taldea 1970ean jaio zen, garai hartako Oñatz kultur elkartearen

» Herritar askoren lan eta konpromisoaren urtemuga da



Oñatzekoak Korpus egunean. (Udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsa)

1984ko Haurren eguneko neska taldea. (Udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsa)



baitan, bi urte lehenago Zubillaga auzoan sortua zuten *Izarrak* dantza taldeak irekitako biderei jarraipena emanaz.

Oñatiko I. Haur Dantzarien Eguna antolatu zuen Oñatzek 1970ean arrakasta handiz, Euskal Herriko herri ezberdinetako 1.000 dantzari batu baitziren gure herrian. Egun hartan piztu zen Oñatz Dantza Taldea sortzeko txinparta.

Zubillagako dantza taldearen arduraduna zen Jesus Irizarri eskatu zioten herri mailako taldea sortzea, eta halaxe hasi zen Oñatz taldea 60 bat neska-mutikorekin.

Oñatzeko kideak Eskoriatzako Gorosari taldeko Mario Padilla-rekin jarri ziren harremanetan dantza berriak ikasteko. Aurrerago, Eibar eta Lizarrara ere gerturatu ziren eta, poliki poliki, errepertorio zabala osatu zuten.

Garai hartako euskalzaletasun eta abertzaletasun giroak bultzatuta, indar handia hartu zuen Oñatzek, eta orduetik aurrera ibilbide oparoa izan du. Haurren Eguna 45 urtez antolatu du eten barik, eta Euskal Herrian zehar antolatzen diren beste hainbat Euskal Jaietan ere parte hartzen du Oñatzek.

Azpitarratzekoa da, bestalde, Euskal Herritik kanpora ere aritu izan dela Oñatzeko nagusien taldea; hala nola, Estatu Batuetan, Kroazian, Polonian, Suitzan...

### OÑATIKO INAUTERIA

Dantzari Egunetan parte hartzeaz gain, beste hainbat lan ere egiten dituzte Oñatz taldekoek. Hala, Oñatiko auzo gehienetako jaietan dantza egiten dute, eta erraldoi nahiz buruhaundien konpartsak ateratzeaz arduratzen dira.

Azpitarratzekoa da, bestalde, Oñatin desagertzeaz zegoen inauteri giroa berpizteko Oñatzek egindako lana. Herrian zegoen hutsuneari erantzun nahian Oñatiko Inauteria sortu zuten orain dela hiru urte, hainbat herritarrekin elkarlanean. Lan handia egin behar izan dute (doinu eta dantza berriak, erropak, materiala...) baina merezi izan du, oso erantzun ona izan duelako. Makina bat herritar elkartzen ditu festa horrek, eta abesrastu egin du herria, inauteri festari zentzua emanaz.

### OÑATIKO DANTZAK

Oñatiko Korpus dantzek aipamen berezia merezi dute Oñatz dantza taldeaz ari



Gaur egun 300dik gora neska-mutiko ari dira dantzetan.

◀ Oñatzeko gazte taldea Txankarrankoa dantzatzen.

1988ko Eguneko alkate, zinegotzi, udaltzain eta apezpiku txikiak. (Udal artxiboko Andres Arlanzon funtsa)

» Dantzek, hizkuntzak bezala, transmisioz iraun behar dute, eta tinko eusten dio ideia horri Oñatzek, belaunaldiz belaunaldi dantzak elkarri irakatsiz



Oñatzek Kroaziara egindako irteerako irudia

garelarik. Oñatiko dantzen jatorria ezezaguna bada ere, jakin badakigu, gutxienez 1560. urteaz geroztik dantzatu izan direla gaurdaino, eta Udalak bere dantzari taldea izan zuela 1975erarte. Urte hartan Udaleko dantzari taldea desegin eta Oñatzek hartu zuen Korpus egunean dantzatu eta mendez mende iraun duten Oñatiko dantzei jarraipena ematearen ardura.

### ETORKIZUNEN ERROKAK ETA KEZKAK

Azken bi urteotan barne antolakuntzaren berregituraketa egin behar izan du Oñatzek, 40 urte luzez taldearen arduraria izan duen Jesus Irizarren lekukoa hartzeko, poliki poliki. Lantalde ezberdinak eratu dira eta, badirudi, oinarriak

sendo daudela etorkizunera begira.

Datozen urteetan, Eltzia egitasmoan integratzea izango da Oñatzen erroka nagusietako bat. Gaur egun Errekalden erbiltzen dituen lokalak txiki gertatu dira (hezetasun arazoak ere badaude) eta, beraz, ETEOko eraikin zaharrera joango da Oñatz, hango gelak egokitu bezain pronto.

Baina ez da leku aldaketa hutsa izango. Eltzia egitasmoa kultura lantzeko eta sortzeko eredu berria da, elkarlanean oinarritzen dena, eta Oñatzek parte aktibo izan nahi du proiektu horretan, herriko beste kultur eragileekin batera, elkarlanaren bidetik proiektu berriak sortzeko asmoz.

Kezka bat ere adierazi digute Oñatz taldeko kideek: gero eta zailagoa da

dantza ekitaldiak antolatzea. Norbaiten omenez dantzatzen diren aurrekuetara eta dantza tradizioaletan oinarritzen diren koreografia berrietara mugatzen ari da euskal dantza. Ekitaldiak murriztearekin batera, diru-laguntzak, dantzariak, musikariak eta ikusleak ere murriztuz doaz.


Bestalde, parekidetasunaren gaiari ere heldu nahi diotela adierazi digute Oñatz taldeko kideek. Gizarteko beste hainbat arlotan bezala, euskal dantzetan ere gizon-zekoek protagonismo handiagoa izan dute beti. Beraz, dantzak gizarteko gertakari eta sentimenduen adierazpide diren neurrian, gizartean ematen diren aldaketetara egokituko behar dute dantzek ere.

#### 45. URTEURRENA

Dantza ikuskizun eder batekin ekingo zaie ospakizunei hilaren 14an. Euskal Herri osoan dantzak ikusteko aukera izango dugu. Ganbara Abesbatzak etamusika bandako kideek ere parte hartuko dute. Igandea (azaroak 15) gazte-txoen eguna izango da. Asteartean, Ane Albisuk dantza-jantziez hitz egingo du, eta asteazkenean Iñigo Murgiondok Oñatzen historiaz. Ostegunean, pintxo-potearekin batera 'Sorgin Dantza' egingo dute kalez kale, eta astea borobil-tzeko, herri bazkaria egingo da hilaren 21ean. Sarrerak salgai daude Txokolateixan. Animo!

# OÑATZ

## 45. URTEURRENA



**TXARTELAK SALGAI**  
Ekitaldi nagusiak: 10€  
Txokolateixan

Bazkari herrikoa: 25€  
Txokolateixan, Alohian eta Ibarraizan

**AZAROAK 14 ZAPATUA**  
22:30 Herriko nagusiak, Urtzi eta Gaithegiak \*

**AZAROAK 15 DOMEKIA**  
12:30 Koruparra, Zaitza Anolik, Txotx, Gaithegiak, Arriaga eta Koruparra  
18:00 Herriko nagusiak eta gazte-zuko dantza, Txokolateixan

**AZAROAK 17 MARTITZENA**  
19:00 Ane Albisuk dantza-jantziez hitz egingo du, Txokolateixan

**AZAROAK 18 EGUAZTENA**  
19:00 Iñigo Murgiondok Oñatzen historiaz hitz egingo du, Txokolateixan

**AZAROAK 19 EGUENA**  
19:00 Sorgin dantza, kalez kale

**AZAROAK 21 ZAPATUA**  
11:00 Herriko nagusiak, Urtzi eta Gaithegiak \*

**AZAROAREN 9TIK 23RA**  
Herriko nagusiak eta gazte-zuko dantza, Txokolateixan

**Azaroaren 14ko jaialdirako sarrerak eta hilaren 21eko herri bazkarirako txartelak Txokolateixan daude salgai. Sorgin dantza prestatzeko entsaioak azaroaren 3an eta 10ean izango dira (19:30).**

## OÑATI GARBIKETAK S.L.

- Komunitate, garaje... garbiketa integrala.
- Lurren kristalizatua, dekapatua eta argizari ematea.

Oñati 17. beheko esk. / Tel.: 732 733 712  
argitagarbi@hotmail.com



**ARGITAGARBI**

## Almaraz

Inmobiliari gestioa

Tel: 679411444  
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz  
"Gure bezarren eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilloi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

Mercedes Hernáiz Gómez-Dégano  
Oñatiko Notarioa

## “Zuzenbide Zibileko Euskal Lege berriak askatasun handiagoa ematen digu testamentuak egiteko orduan”

Urriaren 3an, Euskal Zuzenbide Zibilaren Legea sartu zen indarrean. Lege berri honek nabarmen aldatzen du oinordekotza edo herentzien inguruko araudia. Horregatik, Mercedes Hernáiz Oñatiko notarioarengana jo dugu, lege berriak jasotzen dituen aldaketa eta berrikuntzak ezagutzeko asmoz.



Lege berri hau aplikatuko da ‘Euskal Auzotasun Zibila’ duten herritarren kasuetan. Kontzeptu berria da hau. Zer esan nahi du?

Oinordekotza edo herentzia kontuetan araudi ezberdinak aplikatu izan dira Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan, eta lege berri honen helburuetako bat da araudia bateratzea edo berdintzea. Horretarako, ‘Euskal Auzotasun Zibila’ izeneko figura sortu da eta, hain zuzen, Euskal Auzotasuna duten herritarren herentzietan aplikatuko da lege berria.

Eta nortzuk dute Euskal Auzotasuna? Alde batetik, Araba, Bizkaia edo Gipuzkoan jaio eta bertan bizi direnek; edo kanpokoak izan arren, hamar urtez jarraian hemen erroldatuta daudenek; edo hemen bi urte daramatenek, eta Euskal Legearen menpe egon nahi dutela adierazten dutenek.

Lege berriak dakarren aldaketa nagusietako bat seniparte edo legitimari dagokiona da; (legez pertsona jakin batzuei utzi beharreko herentziaren zatiari dagokiona). Zein da aldaketa?

Orain arte herentziaren bi heren (2/3) derrigorrez seme-alabei edo ondorengoei (bilobak) utzi behar zitzairen, eta guztiei berdin. Eta seme-alabarik ez bazegoen, hildakoaren gurasoentzat geratzen zen, edo bestela ezkontidearentzat, edo bestela anai-arrebentzat.

Orain, lege berriak bi aldaketa nagusi dakar. Batetik, legitima mugatu egiten da; hau da, familiako ondorengoei derrigorrez utzi beharrekoa ondarearen heren bat (1/3) da. Eta beste bi herenak askatasunez erabiltzeko aukera dago.

Bestetik, hildakoaren gurasoek ez daukate senipartea edo legitima jasotzeko eskubiderik; lege berriarekin seniparte-esku-



Familiakoei derrigorrez utzi beharreko seniparte edo legitima murriztu egiten du lege berriak, ondarearen bi herenetik heren batera. Gainera, seniparte hori, nahi bezala eta nahi duzunari emateko aukera uzten du

bidea bakarrik izango dute: seme-alabek edo ondorengoei, eta ezkontideak edo izatezko bikotekideak.

Gainera, senipartean utzi beharreko zatia (ondarearen heren bat) nahi bezala banatzeko aukera ematen du legeak, ezta? Bai, alde horretatik askeago egiten gaitu legeak. Hau da, senipartean eman beharreko heren hori nahi bezala eta nahi duzunari uzteko aukera ematen du

# 40€

**BALIO DU  
TESTAMENTU  
BAT EGITEAK**



## “ Lege berriak berdindu edo parekatu egiten ditu ezkontzak eta izatezko bikoteak herentzia gaietarako, behar bezala erregistratuta dauden izatezko bikoteak baldin badira

Lehendik testamentua eginda dutenei, orduan indarrean zegoen legea aplikatuko zaie. Beraz, aldaketaren bate egin nahi dutenei, testamentua errebistatzea edo kontsultatzea gomendatzen die notarioak

legeak; adibidez, seme bati utz diezaiokezu guztia, eta beste bati ezer ez.

**Beste berrikuntza inportante bat zera da: lege berriak berdindu edo parekatu egiten ditu ezkontzak eta izatezko bikoteak herentzia kontuetarako.**

Bai, baina horretarako Izatezko Bikoteen Euskadiko Erregistroan behar bezala inskribatutako bikoteak izan behar dira. Halako kasuetan, bizirik geratzen den bikotekideak senipartea jasotzeko eskubidea izango du: ondarearen erdiaren usufuktu edo gozamen-eskubidea (seme-alabak baldin badaude), eta bi herenen usufuktua (hildakoaren gurasoak bizi badira).

Etxebizitza eskubidea ere aitortzen zaio ezkontideari edo izatezko bikotekideari.

Hori ere berrikuntza inportantea da. Hau da, alargunak, edo bizirik geratu den izatezko

bikotekideak eskubidea izango du ezkontza-etxebizitzan bizitzen jarraitzeko, berriro ezkondu edo beste izatezko bikote bat sortzen ez duen bitartean. Kasu hauetan ere, etxebizitza erabiltzen jarraitu ahal izango luke, baldin eta hildakoak testamentuan espreski adieraziko balu.

**Hildakoak utzitako zorren aurrean oinordekoek duten erantzukizuna ere mugatu egiten du lege berriak, ezta?**

Bai, orain arte, oinordekoak bere gain hartzen zituen hildakoak herentzian utzitako balizko zorrak eta kargak. Orain, aldiz, zor horiei erantzun behar die bakarrik herentzian jasotako ondasunekin, eta hauek duten balioarekin, baina oinordekoaren ondarea edo patrimonioa salbu geratzen da.

Gainera, orain, herentziari uko egiteko aukera dago, baita testamentugilea bizirik dagoen bitartean ere.

**Oinordekotzak edo herentziak egiteko modu edo formula berriak ere jasotzen dira legean.**

**Oinordetza Paktua (*Pacto Sucesorio*) da horietako bat. Zertan datza?**

Orain aukera ematen du legeak negozio juridikoa egiteko, edo, beste modu batera esanda, alde-biko paktuak egiteko, ondasunaren jabea eta oinordekoaren artean.

Adibide bat jarriko dizut. Demagun, baserritar batek bi edo hiru seme-alaba dituela, baina horietako bi kanpoan bizi direla, eta semeetako bat bakarrik arduratzen dela baserriaz. Kasu horretan, aukera izango luke aitak oinordekotza paktu bidez (alde biek sinatutako eskritura bat) adierazteko seme hori izango dela baserria oinordekotzan jasoko duena, baina bizi den artean aita izango dela titularra; edo momentuan bertan ondasuna semeari transmititu, eta aitak usufuktua izatea hil arte.

Aukera interesgarria eta praktikoa izan daiteke halako kasuetarako; hala, seme horrek gogo gehiagoz lan egin ahal izango du baserria aurrera ateratzen. Kontua da, halako instituzio edo mekanismo berriek erregimen edo arau fiskal berezia eskatzen dutela, eta gaur gaurkoz ez dago Gipuzkoan.

**Ahalordearen figura ere jasotzen du legeak. Zer esan nahi du?**

Horrek esan nahi du, zuk ahalmena eman diezaiokezula beste pertsona bati oinordekoak izendatu eta ondasunen banaketa egiteko.

(Hurrengo orrira)

“ Lege berriarekin hildakoaren gurasoek ez daukate senipartea edo legitima

jasotzeko eskubiderik. Bestalde, alargunari edo bizirik geratzen den izatezko bikotekideari ezkontza-etxebizitzan bizitzen jarraitzeko eskubidea aitortzen dio

Lege berriaren barruan Gipuzkoak badu berezitasun bat: baserria oinordekotzan uzteko aukera.

Hau ez da berria. 1999ko legean araututa geratu zen baserria seme-alaba bati transmititzeko aukera. Oraingo lege berriak egiten duena da 'Baserria' zer den definitu (bere lursailekin), eta esaten da baserria transmititu ahal izango dela bere osotasunean, legeak aurreikusten dituen mekanismoen bidez, besteak beste, lehen aipatu dugun Oinordekotza-Paktuen bidez.

Baserria babestea da helburua, baserriaren kontzeptu juridikoa eta ekonomikoa galdu ez dadin. Gauza bera gerta liteke, mantendu nahi den familia-enpresa baten kasuan.

Jende asko dago testamentua lege zaharrarekin egin zuena. Zer gomendatuko zenieke?

Lege zaharrarekin derrigorrezkoa zen zati bat uztea gurasoentzat (seme-alabarik eta ondorengorik ez bazegoen tartean), eta, beharbada, ez zen hori testamentugilearen borondatea, baina, jakina, testamentua idatzi zenean indarrean zegoen legediaren arabera aplikatu behar da. Beraz, halako kasuetan, testamentua errebisatzea komeni dela uste dut, lege berriarekin ez delako derrigorrezkoa ezer uztea gurasoei.

Bestalde, zenbait kasutan, familia egoera bereziak direla eta, gerta liteke seme-alabaren bati oinordeko izaera kendu nahi izatea, eta lege berriak horretarako aukera ematen duenez, halako kasuetan ere kome-



**Senipartea ez den ondarearen zatiarekin (2/3) zuk nahi duzuna egin dezakezu, baina horretarako testamentua egin behar da**

ni da testamentua errebisatzea. Azken batean 40€ baino ez du balio testamentu bat egiteak.

Noiz gomendatzen duzu testamentua egitea?

Testamentua egin daiteke 14 urte betetzen duzunik hil arte, baina, normalean, bi etapa egoten dira: bikote gazte askok etxebizitza erosten dutenean egiten dute testamentua, zer gerta ere. Baina ohikoena izaten da, seme-alabak eduki ondoren, bizitza egonkortuta daukazunean egitea testamentua.

Gogoratu nahi nuke, gainera, senipartea ez den herentziaren

zatiarekin (ondasunen 2/3) zuk nahi duzuna egin dezakezula: ONG abti utzi, Gurutze Gorriari, kristau elkarte bati, fundazio bati... Baina horretarako idatzita egon behar da. Hil eta gero inork ezingo dizu galdetu.

Bestalde, katean dabilen uste oker bat gezurtatu nahi nuke. Jende askok uste du, testamentua eginda utziz gero, ez dela zergatik ordaintzen, eta, aldiz testamentua egin gabe utziz gero berriz, portzentai bat kentzen dizula Ogasunak. Hori ez da egia. Zergak ordaintzen dira suzesio edo ondorengotza bat egiten den guztietan, berdin da testamentuarekin ala gabe.

Zer gertatzen da testamenturik egin ez duen pertsona baten ondasunekin senitartekorik ez badu?

Hildakoak familiarik ez badauka (ez seme-alaba, ez guraso, ez anai-arreba...) Eusko Jaurlaritzak bereganatzen ditu ondasunak eta hirutan banatzen du: heren bat euskal gobernuarentzat, heren bat foru aldundiarentzat, eta hirugarrena udalarentzat.

## Dibortzioak eta ezkontzak notaritzan

Madrilgo gobernuak uztailean onartu zuen *Ley de Jurisdicción Voluntaria* legearen arabera, aurrerantzean dibortzioak eta ezkontzak notaritzan egin ahal izango dira.

Dibortzioa tramitatu ahal izateko, alde biek ados egon behar dute, eta ez da adin txikiko seme-alabarik egon behar tartean. Beharrezkoa da abokatu baten presentzia.

Ezkontzei dagokienez, ezkondu aurreko espedientea Bake Epaitegian tramitatu behar da, baina ezkontza bera notaritzan egiteko aukera dago orain, udaletxean edo epaitegian bezalaxe. Gainera, 2017tik aurrera, ezkontza aurreko espediente guztia ere notaritzan tramitatu ahal izango da.

**EZKONTZETAN** Etxe-Aundi  
**2015-2016 urteetan**  
 Informazio gehiago,  
**Tel. 943 78 19 56**  
[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)



## 2016KO UDAL AURREKONTUAK HERRITARREKIN LANTZEN

# Herritarren ekarpenak baloratzeko bilera irekia egingo da azaroaren 11n

> Jaso diren 33 proposamenen arten lehentasuna zeintzuk duten erabakiko da herritarren artean

Udalak 2 milioi euro inguru izan ohi ditu inbertsioak egiteko, eta diru-atal horretako zati bat zertan gastatu erabakitzeko parte-hartze prozesua (Partaidetzazko Aurrekontuak) jarri zuen abian aurreko hilean, herritarren ekarpenak jaso asmoz.

Guztira 33 proposamen jaso dira herritarren aldetik. Era askotakoak dira: bide-segurtasuna, aparkalekuak, bidegorriak, garraioa, irisgarritasuna, aisialdia eta kirola, berdintasuna, hirigintza, turismoa, natura eta biodibertsitatea...

Orain, udaleko sail bakoitza bere arloari dagozkion dagokion arloko proposamenak aztertzen ari da, 2016ko udal aurrekontuetan gauzatzeko modukoak diren ala ez erabakitzeko. Gero, aurrera egiten duten proposamen horien artean lehentasunak finkatu beharko dira, eta horretarako bilera irekia egingo da, herritarrek beraien ikuspuntua edo iritzia adieraz dezaten.



### PROPOSAMENAK BALORATZEKO BILERA

**Eguna: azaroak 11, asteazkena**

**Lekua: Bidebarrieta 18 (Erabilera Anitzeko Gela)**

**Ordua: 18:30**

**Herritarrek ikusle soil izatera mugatu barik, diru publikoaren inguruko erabakietan parte hartzeko aukera ematea da helburua**

### BALORATZEKO IRIZPIDEAK

Balorazio hori egiteko, irizpide batzuk hartuko dira kontuan: proposamenak herri osoari eragiten dion ala zati bati bakarrik; adin guztietako herritarrei ala adin tarte batekoei; genero ikuspegia eta jasangarritasuna kontuan hartzen ote duen; sektore ahulenak aintzat hartzen ote dituen... Taula baten bidez puntuatu egingo da proposamen bakoitza, eta horren arabera finkatuko dira lehentasunak.

### PARTE-HARTZERAKO DEIA

Bilera hori azaroaren 11n egingo da, Bidebarrieta 18-ko Erabilera Anitzeko Gelan, eta herritar guztiak daude gonbidatuta; ekarpenak edo proposamenak egin dituzten herritarrek, eta interesa duten guztiak ere bai. Arratsaldeko 18:30etan hasiko da bilera, eta saio motza izango da.

Udaleko Partaidetza sailak dei egiten die herritarrei bileran parte hartzera. Azken batean, administrazioa eta herritarren artean zubiak erakitzea da helburua; herritarrek ikusle soil izatera mugatu barik, diru publikoaren inguruko erabakietan parte hartzeko aukera ematea, eta erabaki politikoetan protagonista izateko bideak jar-tzea.

# italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA

ETXEBIZITZETAN AUKERARIK HANDIENA

- San Martinen
- Kurtzekuan
- Kasablankan

PREZIO BEREZIAKI!

\* Inerzia Jantzerak

Ramón Irizar kalea 2 • OÑATI • Tel. 943 782 707 • www.italde.com

ANALISA



# TTIP

*Transatlantic Trade and Investment Partnership*

## Europar Batasuna eta Ameriketako Estatu Batuen arteko Komertzio eta Inbertsio Transatlantikorako Ituna

**E**zer gutxi dakigu orain-  
goz Europar Batasunak  
eta Ameriketako Estatu  
Batuek hitzartu nahi duten  
TTIP akordioaz, sekretupean  
egiten ari baitira negoziazioak.  
Baina aleka iristen zaizkigun  
albisteak kezkatzeko moduko-  
ak dira. “TTIPa aurrera badoa,  
geratzen zaizkigun eskubide  
sozial eta laboralen amaiera  
izango da” adierazi zuen Laura

Gonzalez de Txabarrik, ELA  
sindikatuaren nazioarteko  
ordezkariak, kultur etxean  
emandako hitzaldian.

TTIParen defendatzaileek  
esaten dute itun honen bidez  
planetako merkataritza askeko  
eremurik handiena sortuko dela  
(munduko ekonomiaren %60  
baino gehiago biltzen duena)  
eta horrek hazkunde ekonomi-  
koa ekarriko duela eta lanpos-

tuak sortuko.

Gonzalez de Txabarrik aldiz,  
zalantzan jartzen du hori.  
“Kasurik onenean, urteko  
%0,1eko hazkunde emango da,  
hamar urtetan, Europako  
Komisioak egindako txosten  
baten arabera. Baina, bestalde,  
beste ikerketa batzuek diote  
ehunka mila lanpostu galduko  
direla”. Gainera, aurrekariak  
daude hori horrela izan daite-  
keela pentsatzeko, ELAko  
ordezkariak azaldu digunez;  
“Estatu Batuek, Kanadak eta  
Mexikok NAFTA ituna sinatu  
zuten 2003an, eta orduan ere  
hazkunde eta lanpostuak ira-  
garri zituzten, baina denbora-  
rekin ikusi da, lanpostuen gale-  
ra, soldaten jeitsiera eta preka-  
rizazioa ekarri dituela. Irabazle  
bakarrak transnazioalak izan  
dira, eta orain prozedura erre-  
pikatu nahi dute Europarekin”.

### ARAUAK HARMONIZATU

Gonzalez de Txabarriren ustez  
TTIPa ez da ohiko merkata-  
ritza akordio bat. “Helburua ez  
da muga-zerga edo arantzelak  
(gaur egun nahikoa baxuak  
direnak) kentzea eta merkatua  
zabaltzea. Helburu nagusia da  
enpresa multinazionalen inte-  
resak defendatzea Estatuen  
legeen aurrean, merkatu aske-  
rako ‘oztopo’ diren gizarte eta  
ingurumen arloko arauak eza-  
batuz”.

Estatuen legeak berdintzea  
edo harmonizatzea omen da  
TTIParen helburua, baina  
behetik. “Europako araudia  
Estatu Batuetakoa baino  
zorrotzagoa da hainbat arlotan:  
langileen eskubideetan, ingu-  
rumenaren babesean, osasun  
publikoan, nekazaritzan... Eta

**ZURRUST**  
TABERNA • JATETXEA  
Bidebarrieta 6  
Tel: 943 71 62 96  
20560 OÑATI

**FAGOR**  
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA

TTIPa aurrera badoa, urteetan lortu ditugun eskubide eta babes neurri horiek pikutara joango dira, legeen harmonizazioaren izenean. Estatu Batuetako multinazional handiak zain dauden Europako araudi zorrotza noiz malgutuko, hona negoziarioa egitera etortzeko”.

“Baina kontuz” ohartarazten du Gonzalez de Txabarririk; “hau ez da Europa eta Estatu Batuen arteko lehia bat, klaseen arteko borroka baizik; Atlantikoaren alde bateko eta besteko elite ekonomikoak gizartearen gehiengoaren aurka”.

Ildo horretan, gogoratu behar da Estatu Batuak dela, LANEn (*Lanaren Nazioarteko Erakundea*) akordio gutxien sinatu duen herrialdea. Uko egin dio, besteak beste, askatasun sindikala eta negoziazio kolektiboari buruzko hitzarmenak sinatzeari. “Beraz, TTIParen harmonizazioak lan baldintzen eta eskubideen galera ekarriko du, inbertsioak erakartzeko aitzakipean. Beste modu batera esanda: deslokalizazioak, eze-gonkortasuna, prekaritatea, soldaten jeitsiera...”.

#### EPAITEGI PRIBATUAK

Multinazionalen interesak defendatzeko, bereziki kezagarriak eta arriskutsuak diren bi organo aurreikusten ditu TTIPak, Txabarririk azaldu digunez. “Batetik, ISDS (*Investor-State Dispute Settlement*) delako tribunal pribatuak dira. Hau da, atzerriko enpresa inbertsore batek uste baldin badu Estatu batek hartutako neurri batek eragin kaltegarria duela enpresaren etekinetan, honek auzitara eraman ahal



**Laura Gonzalez de Txabarririk**  
ELAko nazioarteko arduraduna

“ Edo TTIPa gelditzen dugu, edo gelditzen zaizkigun gizarte eta lan eskubideen amaiera izango da

“ Multinazionalen interesak defendatzea da helburu nagusia, merkatu askerako “oztopo” diren gizarte eta ingurumen arloko arauak ezabatuz

izango du Estatua, eta auzitegi hori pribatua izango da, inolako kontrol publikorik gabe”.

Eta dagoeneko ezagutzen ditugu aurrekari batzuk, non multinazionalen irizpideak gailendu diren tokian tokiko legeen gainetik. Adibidez, *Philip Morris* tabakalerak 2.000 milioi dolarreko kalteordaina eskatu dio Australiako gobernuari, tabako paketeetan publizitatea debekatzeko. *Veolia* enpresa frantziarrak Egiptoko gobernuaren eraman zuen auzitara, langileentzako gutxieneko soldata finkatu zuelako..

Bistan da, beraz, gobernuak bi aldiz pentsatu beharko dutela multinazionalen kaltetan izan daitekeen edozein neurri hartu baino lehen.

Horrez gain, Kooperazio Arautzailea izeneko organoa sortzea ere aurreikusten du TTIPak. Funtzionarioz eta agintari komertzialez osatutako organo bat izango da, etorkizunean onartuko diren arau eta legeak gainbegiratu dituen, komertzio askea eta inbertsioa oztoka dezaketen neurriak ekiditeko. “Beste modu batera esanda, *lobby*-en lana instituzionalizatu egiten da” dio Gonzalez de Txabarririk; “Eta non gelditzen da Parlamentuen soberania? Non demokrazia?”.

#### SEKRETUPEAN

2013ko uztailean hasi ziren TTIPari buruzko negoziazioak, baina 2014ko urrira arte isilean mantendu zituzten eta orduz geroztik ere prozesu ia sekretua da, *Ombudsman*-ek (Europako Herri Defendatzaileak) berak salatu duen moduan. “Europako parlamentariak zailtasunak dituzte informazioa eskuratzeko. Europako parlamentuari ukatu egin zaio negoziatzeko funtzioa, eta elite ekonomikoak ari dira negoziazioak diktatzen. Europako komisioak negoziazioak prestatzeko egindako 560 bileretatik %92 industria *lobby* boteretsuekin egin ditu, eta %4 interes publikoa ordezkatzen duten erakundeekin.

ELAko ordezkararen ustez mobilizatu beharra daukagu. “Edo gelditzen dugu itun hau, edo geratzen zaizkigun lan eta gizarte eskubide apurren amaiera izango da”.



caravanas Oñate

• Galdaragintza - Caldereria  
Ondatzen zutenak, 25 • Tel: 943 71 63 60  
[www.caravanasoonate.com](http://www.caravanasoonate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Ondatzen zutenak, 25 • Tel: 943 71 63 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketak)




# 'ENIGMA' IHESALDI GELA

» Europa mailan gero eta indar handiagoa hartzen ari dira Ihesaldi Gela (*Escape Room*) erako jokoak.

» Asier eta Aimar Santos anaiek era honetako lehen aretoa ('Sala Enigma') zabaldu berri dute Gasteizen.



Aimar eta Asier aztarna bila 'Enigma' aretoko gela batean

Aisialdirako aukera berria eskaintzen dute Ihesaldi Gelek (*Escape Room* edo *Sala de Escape*) izenez ere ezagutzen direnak. Intriga, misterioa eta emozioa uztartzen dituen jolas mota bat da, taldean egiten dena (lagunekin, familian, lankideen artean...). Gutxienez 3 lagun izan behar dira, eta gehienez 5.

Partehartzaileak bereziki girotutako gela batean sartzen dira, eta atea ixten den unetik aurrera ordubeteko denbora tarte dute bertatik irteteko. Horretarako, gelan aurkituko dituzten pista edo arrastoak jarraituz, hainbat proba edo enigma argitu beharko dituzte. Hau da, Sherlock Holmes detektibearena eginez, gela goitik behera arakatu, pistak aurkitu, eta gure logika eta zorrozatasuna erabiliz, istoriaren amaierara iritsi eta gelatik irten ahal izateko giltza edo gakoa aurkitu beharko dugu denbora agortu baino lehen.

## INTRIGA, EMOZIOA ETA TALDE LANA

Ezin dugu askoz gehiago esan, bestela misterioa argituko genukeelako. Baina, garbi dagoena da, gero eta ospe handiagoa hartzen ari den joku mota dela. Aisialdirako alternatiba berria. Urtebeteren buruan era honetako bost gela zabaldu dituzte Bilbon ('*Mad Mansion*' da ezagunena), eta orain Gasteizen zabaldu dute lehenengoa Asier eta Aimar Santos anai oñatiarrek.

Intriga, misterioa eta emozioa garantizatuta daude. "Partehartzaileak erabat murgiltzen dira abenturan, benetako protagonista sentitzen dira,

eta jende guztia oso gustora irteten da, errepikatze gogoz" azaldu digu Asierrek.

Ez da beti lortzen amaierara iristea. "Ez, noski; oso erraza balitz ez luke emoziorik izango. Jolasten duten taldeen %30ek lortzen dute amaierara iristea ordubete baino lehen. Hortxe dago erronka. Talderen bat oso galduta baldin badabil, aurrera egin ezinik, laguntza eska dezake, eta guk pista bat pasatzen diogu ate azpitik", baina hori bezeroaren esku uzten dugu" azaldu digu Aimarrek.

"Zorrotz arakatu behar da gela guztia, gutxien uste dugun lekuan aurkituko ditugulako pista edo arrastoak" dio Asierrek



**Bigarren Mundu Gerrako espioitza abentura batean murgilduko gara 'Enigma' aretoan. Bertan aurkituko ditugun pista edo arrastoak jarraituz, gure logika eta zorrozatasuna erabili beharko dugu istorioaren amaierara iristeko denbora (60 minutu) agortu baino lehen**



▲  
Gasteizko  
Gorbea kaleko  
17an dago  
'Sala Enigma'  
aretoa, Europa  
batzar aretotik  
gertu



[www.salaenigma.com](http://www.salaenigma.com)

<https://www.facebook.com/salaenigmaescape>

aholku moduan; "informazioa arretaz irakurri, ordenatu eta talde-lanean aritzea ezinbestekoa da helburua lortzeko".

## BIGARREN MUNDU GERRAN GIROTUA

Areto hauek gai edo istorio jakin baten inguruan girotuta egoten dira. 'Enigma' aretoan Bigarren Mundu Gerra garaiko espioitza abentura batean murgilduko gara. Konkretuki, gerraren amaieran hain garrantzitsua izan zen 'Enigma' izeneko kriptografia makinaren inguruan kokatzen da trama. "Aurretik dokumentazio lan handia egin behar izan dugu, aretoko gelak behar bezala girotzeko: argiak,

**Jolasean parte hartzen duten taldeen %30ek bakarrik lortzen dute gelatik irteatea denbora tartea amaitu baino lehen. Hor dago erronka!**

## TALDE-JOLASA Gutxienez 3 eta gehienez 5 laguneko taldeetan jokatzen da

argazkiak, dekorazioa... Inguru guztiak ahalik eta errealean jarri dugu, horrek lagundu egiten baitu istorioan murgiltzen eta protagonista sentitzen" azaldu digu Asierrek.

## AISIALDI ALTERNATIBOA ETA 'TEAM BUILDING'

Era honetako Ihesaldi Gelak Hungarian sortu ziren duela hamabost bat urte, eta bertan ezagutu zituen Asierrek. Asko gustatu zitzaion esperientzia, eta orduz geroztik Europako hiriburu ezberdinetan zabaltzen dituzten aretoak probatzen eta ikusten ibili da.

Estatu mailan, Bartzelonan eta Madrilan zabaltzen dituzte lehen Ihesaldi Gelak, eta Bilbon bost areto ireki dituzte urtebeteko epean, arrakasta handiarekin gainera. 'Mad Mansion' aretoa adibidez, Bilboko jolas edo atrakzio baloratuena izan da *Tripadvisor*-en arabera. Orain zirkuito hori Gasteizera



**Gela goitik behera arakatu behar da pista edo arrastoak aurkitzeko. Hauek arretaz irakurri, ordenatu eta talde-lana egin behar da istorioaren amaierara iritsi eta gelatik irten ahal izateko, denbora amaitu baino lehen**

zabaltzea da Santos anaien gogoia.

Aisialdirako ez ezik, 'Team Building' erako aktibitate bezala ere egokiak dira Ihesaldi Gelak, lidergoa eta lankidetzaren bezalako baloreak sustatu eta proban jartzeko.

## ERRESERBAK

Enigma aretoa asteazkenetik igandera dago zabalik 11:00-etatik 21:00-etara. Egunean sei pase egoten dira, eta aurrez erreserba egitea komeni da [www.salaenigma.com](http://www.salaenigma.com) webgunean edo 676541302 zenbakira deituta.

Saio bakoitzak 50 euro balio du, taldeko. Gutxienez hiru eta gehienez bost laguneko taldeak izan behar dira. Adin guztietako jendeari zuzenduta dago; gatzetxoak badira (16 urtetik behera) pertsona helduek lagunduta joan behar dute.

## UDALEKO BATZORDEAK



# Berdintasuna

Berdintasun teknikaria, Leire Zumalde (EH Bildu) batzordeko burua, Nerea Zubia (EH Bildu) eta Marijo Etxegoien (EAJ).

**A**zaroan sartu gara, eta urtero bezala, emakumeenganako indarkeria salatzeke eguna izango da hilaren 25a. Zoritzarrez, aurtengoa ere urte beltza izaten ari da; 40tik gora emakume erailak estatuan, genero indarkeriaren biktima, eta horietatik 4 Euskadin. Udaleko Berdintasun saileko buru Leire Zumalderekin hitz egin dugu gai honi buruz, eta agintaldirako dituzten egitasmoez.

Badator azaroaren 25a eta, tamalez, berriz ere kalera irten beharko dugu. Emakumeenganako indarkeriak ez du etenik. Aurten bertan 43 emakume izan dira erailak estatu mailan, eta horietatik 4 Euskadin. Zein irakurketa egiten duzu?

Emakumeen aurkako indarkeria, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunen adierazpen larriena da, eta hauen eraillketak kasurik muturrenekoenak. Emakumeen eta gizonen arteko ezberdintasuna, patriarkatuaren ondoriozko arazo estrukturala da, zeinak, sexu bakoitzari dagoen kion rola atxikita, emakumeak gizonen mendeko jartzen dituen.

Kopuruak beldurgarriak dira. Argi dago lan asko dagoela oraindik berdintasuna lortzeko.



**LEIRE ZUMALDE**  
Berdintasuna  
batzordeko burua

Askotan, urrutiko kontuak direla uste izaten dugu, baina, tamalez, Oñatin bertan ere gertatzen dira genero indarkeria kasuak.

Oñatin ere gertatzen dira genero indarkeria kasuak bai. Gainera, azken urteotan gora egin du arazo hau dela-eta Gizarte Zerbitzuetan arreta eman dieten kasuen kopuruak.

**“ Tratu txarren biktima edo beldur diren emakumeak animatu egin nahi ditugu laguntza eskatzera. Gizarte Zerbitzuetara edo udaltzaingora jo dezakete**

Udalak badu genero indarkeria kasuetarako protokolo bat. Zer egin behar du halakoen biktima edo beldur den emakumeak?

Udalak genero indarkeria kasuetarako arreta protokolo bat dauka. Orain koordinazio protokolo bat landu nahi da, Osasun Zerbitzuak, Gizarte Zerbitzuak, Udaltzaingoa, Ertzaintza eta gainontzeko

eragileekin modu bateratuan lan egin eta arreta hori hobetzeko.

Beldurra duen edo biktima den emakumeak egoerari aurre egiteko laguntza eskatzea garrantzitsua da. Gizarte Zerbitzuetara edo Udaltzaingorengana jo dezake. Edozein kezka duten emakumeak lasai deitzera edo etortzera animatzen ditugu, errespetu eta begirunetik bere egoera zein den aztertu eta behar duen laguntza ematea gure betebeharra baita.

Larrialdi kasuetan 900 840 111 telefonora ere deitu dezake, bertan 24 orduz, eskaintzen dute laguntza.

Herritarrok, oro har, jarrera aktiboagoa izan behar dugula ere entzun dugu azkenaldian, genero indarkeria zantzuak ikusten ditugunean, horren berri emateko eskatuz.

Batzuetan biktimei kostatzen zaie laguntza eskatzeko pausoa ematea, bizi duten egoera ez baita erraza. Horrenbestez, garrantzitsua da herritarrok jarrera aktiboa izan, emakume horiei gure

LEIRE ZUMALDE | **Berdintasun batzordeburua** ”**Kontseilu Feminista eratzea da agintaldi honetako helburuetako bat, herri mailan dauden talde feministen eta udalaren arteko harremana indartu eta elkarlana sustatzeko**

laguntza eta babesa eskaintzea, bakarrik senti ez daitezzen. Indarkeria egoeren susmoak ditugunean, profesionali (Gizarte Zerbitzuetan) hauen berri ematea.

**Udaleko Berdintasun sailaren ekimenez, Hezkidetza modulu batzuk lantzen dituzte herriko ikastetxeetan. Zein adin tartetan, eta zein helbururekin?**

Gizarte parekidea lortzeko garrantzitsua da heziketan eragitea, ez bakarrik ume edo gazteengan, hezkuntza komunitate osoarengan; guraso, irakasle, ikastetxeetako langileak... Prebentziarako eta gizarte eraldaketarako

funtsezkoa da. Ikasleei zuzendutako tailer ezberdinak egiteaz gain ekimena zabaldu nahi dugu ikastetxeetan, hezkidetza programa integralak garatzeko lanean laguntzeko.

Aurten DBHko ikasleei *Tratu Onen* tailerra eskainiko zaie; gazteak bikote harremanetan hastear dauden adin horretan, harreman sanoak, errespetuzkoak izatera bideratzeko xedearrekin.

**Aurreko agintaldian Berdintasun Plana egin zuen Udalak, herriko hainbat eragilerekin batera. (Besteak beste, Hiri antolamendua- ren azterketa egin zen gene-**

**ro ikuspegitik; errenta baxuak eta familia kargak dituzten emakumeei zuzendutako diru-laguntza programa jarri zen abian; tratutarren inguruko gida argitaratu zen ...). Zein dira agintaldi honetarako egitasmo nagusiak Berdintasun sailean?**

Lehentasunak ondorengorako dira: indarkeria matxistari irmoki erantzutea, protokolo integral bat garatuz; kontseilu feminista sortu eta Oñatiko Emakumeen sarea indartzea; jakintza feministaren hedapena sakontzea, ikerketa beka batekin. Eta abar luze bat, denean baitugu zeregina! Hasi baino ez gara egin lanean.

**Aurreko agintaldian Berdintasun Batzordea eratu zuen EH Bilduk, eta orain berdintasuneko teknikari bat ere kontratatu du Udalak. Zein izango da bere egitekoa?**

Guzti hau aurrera eramatea. Edozein galdera edo propo-

samen egiteko atek zabalik ditu, pozarren gainera, bere lanetako bat baita herrian berdintasuna eta kontzientzia feminista hedatzea eta horretan lagundu edo inplikatu nahi duten guztiekin elkarlanean aritzea. Ez dago lanaldi osoarekin, baina udaletxean bertan dago edozein behar duenak berarengana jo dezake hitzordua eskatuta.

**Herri mailan Andraitz talde feminista eta Gazte Asanblada Feminista daude. Zer nolako harremana duzue talde horiekiko?**

Harreman zuzena daukagu talde horiekin. Ekimenak antolatzeko orduan beraien proposamenak aintzat izaten dira. Agintaldi honetako egitasmoetako bat kontseilu feminista eratzea da, honen bidez, talde hauen eta udalaren arteko harreman indartu eta elkarlana bultzatu nahi da.



MARIJO ETXEGOIEN / EAJko ordezkarria Berdintasun batzordean

## **Berdintasunean pausu bat bera ere ez atzera; beti aurrera. Askok daukagu oraindik egiteko** ”

**Udaletxean ez ezik, zure eguneroko lanean ere Berdintasun arloan diharduzu. Zertan?**

Emakunden egiten dut lan, aholkulari juridiko bezala, emakumeen eta gizonen berdintasun eskubideen defentsa eremuan. Konkretuki, arlo pribatuan (enpresak, elkarteak...) ematen diren bereizkeria edo diskriminazio kasuen aurrean herritarrei aholkua eman, bitartekaritza lana egin eta ikerketak burutzeaz arduratzen naiz.

Horrez gain, komunikabietan eta, bereziki, publizitate-

an gertatzen diren erabilera sexisten inguruko salaketak jaso eta bideratzen ditugu.

**Zertan lan egin beharko luke Berdintasun batzordeak agintaldi honetan?**

Hasteko, oraindik ez dugu ezaugarritu gobernu taldeak agintaldirako duen plan orokorra, eta, bestalde, batzordeak hilean behin egiteak zaildu egiten du modu eraginkorrean lan egin ahal izatea.

EAJren aldetik hauxe da proposatzen duguna. Alde batetik, Gobernantzaren arloan udalak etxeko lanak egitea; hau da,

egunerokotasunean berdintasunaren ikuspuntua txertatzeko, beharrezkoa da langileak eta politikariak formatzea.

Bestalde, patriarkatuan oinarritu duten gizarte baloreak aldatzeko 'Hezkidetza' programa jarri behar da martxan, eskolak, familiak eta agente sozialak (kirol teknikariak, gazte hezitzaileak...) kontuan hartuko dituenak.

Emakumeen ahalduntzean ere urratsak eman behar dira. Emakumeok jakin egin behar dugu zein diren gure eskubide indibidual eta kolektiboak.

Bestalde, gizarte erantzuki-

dea garatu behar dugu, eta horrek konpromiso pertsonala eskatzen du, etxeko eta arlo publikoko lanak eta ardurak banatzeko. Ildo horretan oso garrantzitsua da denboraren erabilera berriak (kontziliazio enpresetan...) proposatzea.

Azkenik, genero indarkeriaren kontrako borroka eraginkorra egin behar dugu. Ildo horretan, behar beharrezkoa da Koordinazio Protokolo bat. Ildo berean, gazteen artean 'Beldur Barik' programari sustatzea ere beharrezkoa da.

**Mezuren bat, amaitzeko?**

Pausu bat bera ere ez atzera. Berdintasunak sinergiak batzea eskatzen du, eta udal Berdintasun batzordeak bidelagun izango gaitu beti.



2016ko urtarrilaren  
1ean sartuko dira  
indarrean tarifa berriak

## Kalegoienako parkinean aurreneko bi orduak dohainik izango dira, kiroldegikoan bezala

### > Kiroldegiko parkineko prezioak %60 merketuko dira, Kalegoienakoekin parekatuz

2016ko Zerga Ordenantza onartu du Udalak, eta aldeketa nagusia Kalegoiena eta Kiroldegiko lurpeko parkinetako tarifetan antzemango dugu. Gobernu taldea bat etorri da EAJk egindako proposamenarekin eta hala, Kalegoienako aparkalekuan aurreneko bi orduak dohainik izango dira, kiroldegikoan bezala. (Gaur egun aurreneko 30 minutuak dira doakoak Kalegoienan).

Bestalde, kiroldegiko parkineko tarifak %60 merketuko dira, Kalegoienakoekin berdinduz. Hau da, aurreneko bi orduak dohainik izango dira, eta hortik aurrera minutuko 2 zentimo

ordaindu beharko dugu (1,20 euro orduko). Gaur egun 5 zentimo ordaintzen dira minutuko (3 euro orduko).

#### ZERGA ETA TASAK IZOZTUTA

Gainerakoan, udal zerga eta tasa gehientsuenak bere horretan mantentzea erabaki du Udalak, EH Bilduren aldeko botoz, eta EAJren abstentzioarekin. Jeltzaleek adierazi zuten ez daudela ados etxebizitza hutsei ezartzen zaien %100eko errekarogarekin, ez eta zaborraren tasa izoztearekin ere.

## Kontribuzioa eta zabor tasa eztabaidagai

Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan (Kontribuzioa) etxebizitza hutsei aplikatzen zaien %100eko gainordainketa edo errekarogak eztabaida eragin zuen urriko osoko bilkuran gobernu taldea eta oposizioaren artean.

EAJren ustez, %100eko errekarogua aplikatzeak ez du emaitzarik lortu eta, beraz, herritarrak zigortu ordez, politika aktiboak aldarrikatu zituen Miren Elgarrestak; hala nola, Alokabideren Bizigune eta Asap programak sustatzea, eta hutsik dauden etxebizitzak eraberritzeko laguntzak ematea, bizigarritasun baldintzak bete ditzaten.

Bestalde, EAJk ez du begi onez ikusten zabor tasa urtez urte izoztea. Jeltzaleek ohartarazi dute, urtero 220.000 euroko defizita sortzen dela udalaren diru-kutxan, udal gobernuak zabor tasa ez igotzea erabaki duelako, Mankomunitateak sarritan egindako aholkuari muzin eginez. Eta ondorioz, beste jarduera batzuetara bidera litekeen dirua, sortutako defizita ordaintzeko erabili behar du Udalak.

EH Bilduren izenean Mikel Biainek erantzun zuen, esanez, kontribuzioan aplikatzen den errekarogua ez dela zigor bat,

alokairua sustatzeko politika fiskala baizik. Alkateak gogorarazi zuen, kontribuzioaren errekaroguari esker Udalak jasotzen dituen 90.000 euroekin, gazteen emantzipaziorako dirulaguntza programa aurrera eramaten dela (aurten 22 gaztek eskatu dute laguntza), eta diru-poltsa horrekin egingo zaiola aurre siriari errefuxiatuei laguntzeko programari, bost familiendako bost etxebizitza egokituz bi urterako.

Biainek argitu zuen gaur egun Oñatin 800 etxebizitza daudela hutsik, eta 344ri (%40) aplikatzen zaiela errekarogua, salbuespen kasuistika oso zabala dagoela gogoratuz.

Zabor tasari dagokionez, alkateak azaldu zuen zerbitzuak %76ko estaldura maila daukala (kiroldegia edo zineak dutenaren parekoa). Hondakinen kudeaketa arduratsua gai garrantzitsua dela gaineratu zuen alkateak, eta defizit hori onargarria dela, eta oinarririk gabeko alarmismoa sortzea egotzi zion EAJri. Alkateak esan zuen udaleko sarrera eta gastuak orekatuta daudela, eta krisi garaian egonagatik ere, udalaren zorpetze maila jeistea lortu dutela.





Arkauz zure etxea da.

**ARKAUZ**  
GRUPO  
ARETXABALETA 1950 - 2015 ARRASATE  
**65 urte**

ETXE MODEL  
ALTIZORIKO  
FLEX

ARETXABALETA  
FLEX  
Luzerako etxeak

ARRASATE  
FLEX  
Luzerako etxeak



**SAN MARTIN GUNEAN** GARAJEAK eta **SALGAI**  
bukatutako eraikinean, azken **ETXEBIZITZAK**

2 eta 3 logela  
177.259€ -tik

MOJASORO S.L. - Informazioa: 689 420 761 Eraikitzailea: Egaralur [www.egaralur.net](http://www.egaralur.net)



## Lanpostu deialdiak

### Udaleko Giza Baliabideetako sailerako teknikari bat kontratatzeko deialdia

Udal departamentuen antolakuntza aztertu eta langilego beharren azterketa egitea izango da, besteak beste, bere eginkizuna. Betebeharrak hauek dira: Zuzenbidean edo Enpresa Zientzietan lizentziatura, eta 4. hizkuntz eskakizunaren pareko euskara maila. Sei hilabeteko kontratua izango da, hasiera batean. Interesatuak azaroaren 17ra arteko epea dute izena emateko. Udalaren webgunean ([www.oñati.eus](http://www.oñati.eus)) kontsulta daitezke deialdiaren oinarriak.

### Udal brigadarako pioi eta pioi-gidari lan poltsak osatzeko deialdiak

Udaleko lan-brigadan sortzen diren aldi baterako beharrei aurre egiteko bi lan poltsa osatzeko deialdia egin du Udalak. Betebeharrak hauek dira: 16 urte beteta izatea, eta Eskola Graduatua nahiz B gidabaimenaren jabe izatea. (Pioi-gidarien kasuan C gidabaimena). Baterako eta besterako 2. hizkuntz eskakizunaren pareko euskara maila eskatuko da. [www.oñati.eus](http://www.oñati.eus) webgunean kontsulta daitezke oinarriak. Izena emateko epea: azaroak 17.

## Neguko ordutegia sartu da indarrean Oñati-Arantzazu autobus zerbitzuan

Azaroaren 1etik martxoaren 28ra arte neguko ordutegia egongo da indarrean Oñati eta Arantzazu arteko autobus zerbitzuan. Hauxe izango da ordutegia:

#### OÑATITIK ARANTZAZURA:

07:30, 08:30, 09:30, 10:30 (\*), 11:30, 12:30, 13:30, 16:30 eta 17:30.

#### ARANTZAZUTIK OÑATIRA:

08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:15, 13:15 (\*), 14:00, 17:15 eta 18:00.

(\* Geldialdia egiten du Arrikruzten

## Debagoieneko Gastronomia Jardunaldiak



Abenduaren 8ra arte menu bereziak prezio berezietan dastatu ahal izango ditugu eskualdeko sei jatetxetan: Oñatiko Etxe Aundi eta Goiko Benta, Arrasateko Hilarion eta Santa Ana,

Bergarako Lasa eta Elgetako Maialden. Horrez gain, bertako elikagaien jatorria eta elaborazioa ezarutzeko bisita gidatuak, eta garaiko postreen inguruko tailer eta lehiaketa bana ere egingo dira. Ikusi menuak eta egitaraua: [www.turismodebagoiena.com](http://www.turismodebagoiena.com)



## Mundukide Fundazioaren 'Batu taupadara' argazki erakusketa ikusgai ULMA Taldean

Debagoieneko Mundukide fundazioak bere hamabost urteko historian egindako lana erakusten duen 'Batu taupadara' argazki erakusketa ikusgai egongo da hil honetan Ulma Taldeko lan-tegi ezberdinetan. Pertsona askoren bizi kalitatea hobetzeko asmoz, Mozambiken, Kuban eta Brasilen egindako lana eza-gutzeko aukera ematen du erakusketak.

### MIREN AMURIZAREN 'KAPULANA BAT ZINTZILIK'

Azaroaren 26an, osteguna (17:30) Miren Amurizaren 'Kapulana bat zintzilik' ikuskizuna egongo da Ulmako eraikin nagusiko auditoriumean (Garagaltza 51). Mozambiken bizi izandako esperientziaren kontakizuna da, bertso eta ipuinen bidez. Herritar guztiak daude gonbidatuta ikuskizunaz gozatzera eta bertan egongo den argazki erakusketa ikustera.



### SIRIAR ERREFUXIATUEI LAGUNTZEKO KANPAINA

ACNUR erakundearekin elkarlanean, siriar errefuxiatuekin bizi dugun krisi humanitarioari aurre egiten laguntzeko dirubilketa kanpaina jarri du abian Ulma Fundazioak. Hala, 38014 zenbakira SMS bat ULMA hitzarekin bidaltzen dugun bakoitzeko 6 euroko ekarpena egingo dugu. Bestela, ACNURek Laboral Kutxan duen kontuan ere egin daitezke ekarpenak.



## Zikin ugari gure erreketan

Gure errekek gero eta garbiago dauden arren, oraindik ere zikin ugari dago, Ibai-Lagun ekimenaren barruan urriaren 18an egin zen erreka garbiketan ikusi ahal izan genuen moduan. Hogeita hamabi lagun ibili ziren zikinak batzen, eta hainbat tona hondakin atera zituzten. Argazkian daude lanean ibili zirenetako batzuk.



# NEGUKO ORDUTEGIAK

\* Urriak 5ean egunerotua / Actualizado el día 5 de octubre

HORARIOS DE INVIERNO



Pesako web guneko ordutegiak oinarri gisa hartuta. Geralekutik pasatzeko ordutegiak gutxi gora beherakoak dira eta aldaketak jasan ditzakete. Ordutegiek aldaketak jasan ditzakete, astelehenetik zapatara bitarteko jaiegunetan, hauen bezpera eta hurrengo egunetan.

Horarios basados en la página web de Pesa. Los horarios de paso son orientativos, pudiendo sufrir variaciones. Horarios sujetos a posibles modificaciones en días festivos de lunes a sábado, sus vísperas y posteriores.

INFORMAZIO GEHIAGO NAHI IZANEZ GERO / SI NECESITA MAS INFORMACION

DOHAKO TELEFONOA EGUNERO / TELEFONO GRATUITO DIARIO

**900 12 14 00**  
(7:30 - 21:30)





BILBO-SANPRU	
Lanegunak/Laborables	
0601	7:45 11:45 17:15
0602	9:15 16:45 19:45
0603	11:30 14:30 20:30
Larunbatak/Sabados	
0604	10:00 14:00 20:00
0605	11:00 17:00 22:30
0606	11:30 14:30 20:30
Igandak/Domingos	
0607	12:00 17:00 21:30
0608	10:00 14:00 20:00 22:30
0609	11:30 19:00 21:30

VITORIA GASTEIZ-SANPRUDEN	
Lanegunak/Laborables	
0601	7:45 10:30 18:30 18:15 21:15
0602	8:30 11:15 14:30 18:30 21:30
0603	9:15 11:30 15:15 19:15 22:00
0604	9:30 12:30 15:30 19:30 22:30
0605	10:15 13:15 17:30 20:30
Ostrial eta Larunbatak	
0606	9:00 22:55
Viernes y Sabados	
Asteburua eta jaiegunak	
Finis de semana y festivos	
0607	7:55 10:55 13:55 16:55 19:55
0608	8:55 11:55 14:55 17:55 20:55
0609	9:55 12:55 15:55 18:55 21:55

ARRASATE - SANPRUDENTZIO	
Lanegunak/Laborables	
0601	6:20 8:20 10:35 13:35 15:20 17:20 19:25 22:05
0602	4:50 6:50 8:50 11:15 13:50 15:50 17:50 20:05 22:45
0603	5:20 7:20 9:20 11:55 14:20 16:20 18:20 20:45
0604	5:50 7:50 9:55 12:35 14:50 16:50 18:50 21:25
0605	6:35 8:35 10:55 13:35 15:35 17:35 19:45 22:25
0606	5:05 7:05 9:05 11:35 14:05 16:05 18:05 20:25
0607	5:35 7:35 9:35 12:15 14:35 16:35 18:35 21:05
0608	6:05 8:05 10:15 12:55 15:05 17:05 19:05 21:45
Igandak	
0609	7:50 9:25 11:25 14:00 16:05 19:05 21:25
0610	8:00 9:00 10:00 12:00 14:05 16:15 19:25 22:00
0611	8:30 9:05 10:05 12:05 14:25 17:05 20:00 22:05
0612	7:00 8:20 10:25 12:25 15:05 18:05 20:05 22:25
0613	7:05 8:25 11:00 13:05 15:25 18:25 20:25 22:45
0614	7:25 9:05 11:05 13:25 16:00 19:00 21:05 23:05
0615	7:15 8:40 11:40 14:40 17:40 20:40
0616	6:05 7:30 9:45 12:45 15:40 18:40
0617	7:00 7:40 10:45 13:35 16:45 19:45
Ostrialak	
0618	15:00 22:30
Viernes	
0619	21:25 23:30 0:30
Larunbatak/Sabados	
0620	9:30 14:00 18:30
0621	8:30 11:00 15:30 20:00
0622	8:00 12:30 17:00
0623	13:30 15:30 21:30
Igandak/Domingos	
0624	8:35 11:35 15:35
0625	10:30 16:35 20:35
0626	12:35 18:35
Asteburua eta jaiegunak/ Finis de semana y festivos	
0627	6:30 9:40 13:40 15:40 17:40 19:40 21:40
0628	7:40 10:30 12:30 14:30 16:30 18:30 20:30 22:30
0629	8:30 11:05 13:05 15:05 17:05 19:05 21:05 23:05
0630	8:50 12:20 16:20 20:50
0631	8:50 13:20 17:20 21:20
0632	9:50 13:50 18:20 22:20
0633	10:50 14:50 18:50
0634	11:20 15:50 19:50

BERGARA-SANPRUDENTZIO	
Lanegunak/Laborables	
0601	7:10 9:10 11:15 13:55 16:10 18:10 20:10 22:45
0602	5:25 7:40 9:40 11:55 14:35 16:40 18:40 20:45 23:25
0603	6:10 8:10 10:10 12:35 15:10 17:10 19:10 21:25 24:05
0604	6:40 8:40 10:40 13:15 15:40 17:40 19:40 22:05
0605	8:10 10:10 12:10 14:10 16:30 18:10 20:10 22:10
0606	8:35 10:35 12:35 14:30 16:35 18:30 20:35 22:35
0607	9:05 11:05 13:05 15:05 17:05 19:05 21:05 23:05
0608	7:05 9:10 11:10 13:10 15:10 17:10 19:10 21:10 23:10
0609	7:35 9:30 11:35 13:35 15:35 17:35 19:35 21:35 23:35
0610	8:05 10:05 12:05 14:05 16:05 18:05 20:05 22:05
0611	8:15 11:10 14:10 16:10 19:00 21:55
0612	7:10 9:10 12:00 15:10 17:00 20:10 22:55
0613	8:00 10:00 13:00 15:15 18:10 21:00
0614	6:25 8:35 11:35 15:35 19:35
0615	7:05 9:35 13:35 17:35 21:35
0616	7:35 9:35 13:35 17:35 21:35
Ostrialak/Viernes	
0617	14:45 0:05 0:35 1:05
Larunbatak/Sabados	
0618	17:55 0:00 14:45
0619	13:15 19:15 8:45 17:45 23:50
0620	10:15 14:55 20:45 10:45 20:45 0:35 8:40 2:10
0621	11:55 16:15 22:35 12:45 23:15 1:05 0:40
Igandak/Domingos	
0622	12:55 18:45
0623	14:45 22:15
0624	8:55 14:45 20:45 10:45 17:45 23:15
0625	10:45 16:55 21:45 12:45 20:45
0626	19:15
Asteburua eta jaiegunak/ Finis de semana y festivos	
0627	11:50 15:50 19:50
0628	13:40 18:40 23:40
0629	3:50 12:30 16:30 20:30 9:40 14:40 19:40
0630	8:35 18:35
0631	7:50 12:50 16:50 20:50 10:10 15:10 20:10
0632	8:50 13:50 17:50 21:50 11:10 16:10 21:10
0633	9:50 14:30 18:30 22:30 12:10 17:10 22:10
0634	10:50 14:50 18:50 22:50 12:40 17:40 22:40


ESKORIATZA - SANPRUDENTZIO	
Lanegunak/Laborables	
0601	7:30 11:35 15:30 19:05
0602	4:30 8:00 12:15 16:00 19:45
0603	5:00 8:30 12:55 16:30 20:25
0604	5:30 9:00 13:30 17:00 21:05
0605	6:00 9:35 14:00 17:30 21:45
0606	6:30 10:15 14:30 18:00 22:25
0607	7:00 10:55 15:00 18:30
Lanegunak/Laborables	
0608	7:45 11:55 15:45 19:25
0609	4:45 8:15 12:35 16:15 20:05
0610	5:15 8:45 13:15 16:45 20:45
0611	5:45 9:15 13:45 17:15 21:25
0612	6:15 9:55 14:15 17:45 22:05
0613	6:45 10:35 14:45 18:15
0614	7:15 11:15 15:15 18:45
Lanegunak/Laborables	
0615	7:45 11:40 15:40
0616	12:50 20:50
0617	5:50 7:45 23:20
0618	6:45 7:30 0:30
0619	7:00 6:30 23:30 25:00
0620	12:30
0621	13:20
0622	19:30
Larunbatak/Sabados	
0623	11:40 19:40
0624	8:30 23:30
0625	6:00 23:30
0626	9:00 0:30
0627	10:00 16:00 21:00
0628	11:00 16:30 22:30
0629	11:30 17:30
0630	12:30 18:30
Asteburua eta jaiegunak/ Finis de semana y festivos	
0631	13:00 18:30
0632	8:00 13:30 19:30 7:20 15:20 22:50
0633	8:30 14:00 20:00 9:20 16:50
0634	9:30 15:30 21:00 10:50 17:20
0635	10:00 16:00 21:00 11:00 16:30 22:30
0636	10:30 16:00 22:00 11:20 18:50
0637	11:30 17:30
0638	12:50 19:20
0639	13:00 18:00
0640	13:20 20:50

LOIU-SANPRUD	
Egunero/Diario	
0601	6:45 9:45 15:45 23:15

DONOSTIA-SANPRU	
Lanegunak/Laborables	
0601	9:15 14:15 18:15
0602	6:15 10:15 14:30 19:15
0603	7:15 11:15 15:15 20:15
0604	7:30 12:15 16:15 21:00
0605	8:15 13:15 17:15 22:00
Ostrial eta jaiezerak	
Viernes y visperas de festivos	
0606	14:00
Larunbatak/Sabados	
0607	11:00 15:30 20:00
0608	8:00 12:30 17:00 22:00
0609	9:30 14:00 18:30
Igandak/Domingos	
0610	8:00 14:00 20:00
0611	10:00 16:00 21:00
0612	12:00 18:00

## OÑATIARRAK MUNDUAN

## eta MUNDUA OÑATIN



Izena: Oihana Iriondo  
Adina: 33 urte  
Los Angeles (Estatu Batuak)



Izena: Iryna Shadyuk  
Adina: 42 urte  
Ukrainarra



Iazko martxoan iritsi zen Oihana Estatu Batuetara. Lanerako lasmotan joan zen, Biologia ikasketak amaitu eta doktore tesia egin ostean. Hainbat hiritan lan bila ibili ondoren, Los Angelesen suertatu zitzaion aukera.

Unibertsitatean egiten du lan, ikerkuntza laborategi batean, bularreko minbiziaren inguruan, gaixoen odolean aurki daitezkeen zelula tumoralak aztertuz, besteak beste.

Estatu Batuetako metropolirik handienetakoa da Los Angeles; kontrastez betetako hiria, anitza. *BelAir* edo *Beverly Hills* bezalako hirigune aberatsak daude, baina, bestalde, 'gang' edo 'pandilla' arteko borrokak eta pobrezia handia pairatzen duten auzo pobreak ere badaude.

Santa Monika hirian bizi da Oihana, Los Angeles-eko erdigunetik ordu erdira, itsas ertzean. Leku atsegina omen da. Trafikoa eta eguneroko auto-ilarak jasan beharra da txarrena, eta baita airearen kutsadura maila ere.

Kaliforniara joanez gero, estatuan zehar duaden parke natural ikusgarrietara (*Grand Canyon*, *Joshua Tree*, *Yosemite*, *Sequoia Park*...) joatea gomendatzen du, eta hiriren bat bisitatzekotan, San Francisco, dudarik gabe.

Lagunak eta familia faltan botatzen ditu, baina duen lanbidea dela-eta zail xamar ikusten du Oñatira bueltatzea. Gustatuko litzaioke Europara gerturatzea egunen batean.

Ukrainakoa jatorriz, duela hamar urte iritsi zen Iryna Oñatira. Aurretik Donostian eman zituen bi urte, pertsona nagusiak eta haur txikiak zaintzen. Oñatira ezkondu eta seme bat izan zuen, baina handik gutxira banandu egin ziren, eta hor hasi zen etapa berri bat Irynarentzat. "Etapazaila, ez baita bate-re erraza haur txiki bat eta lana batera eramatea; baina hemen-go lagunak asko lagundu zidaten aurrera egiten". Ukrainan hasitako ikasketak (Enpresa Zientziak) amaitu eta homologatu egin ditu Enpresagintza fakultatean. "Gogor egin behar izan dut lan, baina oso pozik nago lizentziatu titulua lortuta".

Bidebarri enpresan aritu da lanean hiru urtez, baina udan kontratua amaitu zitzaion, eta orain bere kabuz enpresa proiektu bat aurrera atera nahian dabil. Aurpegiko eta gorputzeko azalaren itxura hobetzeko terapia bat ikasi du Moskun, eta hori Oñatiko emakumeei eskaintzeko aukera aztertzen ari da".

Gustura dago Oñatin. Iritsi berritan bakardadea sentitu zuela aitortu digu, baina poliki poliki herrian integratzea lortu du. "Oro har ondo hartu naute oñatiarrek, maitatua sentitzen naiz. Lagun asko ditut, eta eskerrak eman nahi dizkiet aurrera irtetzen lagundu didaten guztiei. Osasuna eta zoriona opa diet guztiei. Bestalde, kanpoko jendeari esango nioke, lehenengo eta behin beraien buruarengan konfiantza izan behar dutela, eta espiritu positiboa, horrela errazagoa baita aurrera egitea".

GARBIKETA  
ADMINISTRAZIOA  
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta eikarleen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS  
URBIA  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

# Kontzejupetik



**ARGITARATZAILEA:** Oñatiko Udala

**ZUZENDARIA:** Iñigo Arregi

**PUBLIZITATEA:** Aratz Losada

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA:**

Aratz Losada

**KOLABORATZAILEAK:** Jerardo Elortza

eta Udal Euskaltegia

**INPRIMATEGIA:** Gertu

**Tirada:** 5.500 ale

**Lege gordailua:** SS-357/91

**Posta-e:** kontzejupetik@onati.eus

**Publizitatea:** publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa

20560 Oñati (Gipuzkoa)

Tel.: 943 78 20 72

Kontzejupetik aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Azaleko argazkiak: Udal artxiboko Jesus Mari Arzuaga funtsa eta Kontzejupetik

## GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI | Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: kontzejupetik@onati.eus

## Parekidetasunari bizkar emateaz

*Karmele Guridi eta Rebeke Maestro, Oñatiko Sare Feministako kideak*

Uda bero baten ostean (beroa uzentzu askotan) iritsi zaigu udazkena, hau ere bero-bero. 1996 urtean emakume talde bat Hondarribiko Alardean parte hartzen saiatu zan eta oraindik, ia 20 urte eta gero, gauzak ez dira asko aldatu. Atzera pausoak ematen dira, adibidez Aldundi berrikoek, Markel Olano eta bere lan-taldekoek, tartean dela gure herriko Miren Elgarresta –Aldundiko berdintasun zuzendari berria- ez dira izan Alarde parekidea babesten.

Emakundek berak Hondarribiko Alardareari buruz esandakoak dira: “Emakundek argi dauka berdintasun arazo baten aurrean gaudela, eta gogoratu nahi du berdintasuna balio soziala eta demokraziaren oinarritzko ardatza dela”. Baina aldundikoek ez dute horrela ulertzen, dirudienez. Bere hautua garbia izan da, esanguratsua gainera, parekidetasunaren aldeko agerraldi publikoari bizkar ematea eta horretarako erabilitako argudioa: bere presentziak “tentsioa” areagotuko zuelako hartu dute erabakia.

Baina gatazka hor dagoenean horrelako jokaerek ez diote konponbideari bide ematen, hor ez dago soluzioaren aldeko apusturik. Hortaz, gure buruari galdetzen diogu ea zertarako duen Aldundiak Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako organo bat horrelako egunetan agertzen ez badira? Izan ere, jaietan gertatzen dena gizartean gertatzen denaren isla da.

Amaitzeko Bilgune Feministaren

hitzak gogora ekarri nahi genituzke: Gipuzkoako Foru Aldundi berrikoek atzera begira jarri beharko diren batean ohartuko dira, urratsa atzera eman zutela 2015eko irailean. Guk, bitartean, aurrera egiten jarraituko dugu, ez dizuegu itzarongo”.

## Jaurlaritzaren errelatoaren irakurketa kritikoa

*Ander Lizarralde*

Eusko Jaurlaritzak, Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren bitartez, herriz herri, bizitzeko eskubidearen aurkako urraketen zerrenda batzuk osatu ditu. Tartean dago Oñatiko herriari dagokion zerrenda ere. Bertan hainbat guardia zibilen hilketa azaltzen da eta hauek biktimatza hartzen dira. Susana Arregiri buruz berriz esaten du “egiaztatze eta ikertze lan handiagoa behar duen kasua” dela. Bibliografian (txostena osatzeko erabili den lanen zerrendan) ez da agertzen Ricardo Zabalza-ren “Foz de Lumbier; antecedentes y crónica de unas ejecuciones” liburua. Liburu horretan nahi adina frogaz azaltzen dira baieztatzeko Susana Arregi eta Jon Lizarralde hil egin zituztela Irunberrin. baina badirudi Eusko Jaurlaritzak (PNV-k) zalantzak dituela oraindik.

Horregatik, Eusko Jaurlaritzaren “errelatoa” gure ustez ez delako zuzena, eta herritarrok garelako geure “bertsio ofiziala” osatu behar dugunok, bi hitzordu hauek antolatatu ditugu *Gaztetxean*: 1) Azaroak 11, asteazkena, arratsaldeko 18:00retan, gaztetxean. Gaia: “Oñatik azken hamarkadetan jasan duen errepresioa”; 2) Azaroak 18, asteazkena, arratsaldeko

18:00retan, gaztetxean. Gaia: “Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzaren Idazkaritzaren Oñatiri buruzko txostenaren irakurketa kritikoa”.

Hitzordu hauetan ateratzen ditugun ondorioekin idatzi bat bidaliko dugu abenduko Kontzejupetik-era.

Estatu espainiarren eta Eusko Jaurlaritzaren errelatoarekin kritikoak zaretzen herritar guztiak gonbidatuta zaudete; animatu!

## Haurren danborrada

*Aitor Madina Murua, Zuzendaritza taldea*

Aurtengo Oñatiko jaietan Haurren danborrada kaleetan ikustea zalantzan egon zen arren, azkenean gazte eta guraso talde batekin eta Jose de Azpiazu Musika Eskolaren laguntzarekin aurrera ateratzea lortu genuen eta ausartuko ginategi esaten ere, oso emaitza onarekin.

Denbora gutxi genuen, baina egia esan, aurrera egiteko konpromisoa hartuta zegoen eta antolaketa funtsezkoa izan zen lanari aurre egiteko. Azkenean lan bikaina egin genuen.

Guzti hori kontuan hartuta, honako honen bidez zoriondu nahi ditugu, bai hiru hamarkada baino gehiagotan haurren danborradaren antolakuntzan parte hartu duten guztiak, bai erreleboa hartu duten taldeak ere.

Aurrerantzean elkarlanerako prest izango gaituzue! Mila esker eta segi horrela lanean!!!



## 3.111 euro BERRIARI

*BERRIAREN OÑATIko LAGUNAK*  
Koldo Zumalde Barrena

Txosnaguneko sukaldeari bai esateko orduan, kezkak eta ardurak ilaran etortzen zaizkigu: “Gai izango ote gara?”. Jo behar izaten dugu ate ugari, esku askoren premia irabazi eta antolaketa egokienean saiatu: *borondatea, kalitatea, errealitatea...*

Sei egunean. Ekin zion euskaltegiak; eutsi zion danborrada eguneko *kintadiak*; Txatxiku Ikastolak sendo ondoren; Herri Egunean gazteria nagusi; Elkar Hezik maratzen hurrengo; eta *Bixamonian*, kito: *izerdia, ausardia, zobardia*.

Egin ditugu kontuak; ez dago zorrik kontent gara, uros.

Eta bihar, etzi... paperak hitza, hitzak bizitza.

Eskerrik asko.

## Zuzenketa

Urriko zenbakiko ‘Oñatiko Memoriaren Erretratuak’ izeneko erreportaiaren Angel Fernandez heriotza 1993an gertatu zela idatzi genuen, baina datua ez da zuzena, 1983an gertatu baitzen.

## Oharrak

### Plater tiraketan batutako 400 euroak ASPANOGI-rentzat

Urteroko moduan, irailaren 29an jokatu zen herri mailako plater tiraketa, Pago Uso elkarteak antolatuta. Danera 47 partaide izan ziren, eta Jesus Inzak jantzi zuen txapela, hamabost platerak jota. Ondoren, 14rekin, bost tiratzaile berdinduta: Jose M<sup>a</sup> Olalde, Javier Vera, Jose Miguel Uribeberria, Jose Antonio Guridi eta Jose Ignacio Leibar. Tiraldian batutako dirua (400€) ASPANOGIra (Gipuzkoako haur minbizidunen gurasoen elkarte) bideratu ditu Pago Usok. Lerro hauen bidez elkarteak eskerrak eman nahi dizkie tiraldia babestu duten herriko komertzio, lantegi, jatetxe, taberna eta gainontzeko erakunde guztiei, eta Udalari.



Aurtengo San Migeletako plater tiraldiko podiuma

### Hauteskunde orokorretarako hautesle zerrenda ikusgai

Abenduaren 20ko hauteskundeetarako hautesle zerrenda ikusgai egongo da udal bulegoetan hilaren 9ra arte. Azken hilabeteotan 18 urte bete eta Oñatira bizitzera etorri edo helbidez aldatu dutenei komeni zaie bereziki datuak errebisatzea.

Botoa postaz eman ahal izateko eskaerak abenduaren 10a baino lehen egin behar dira posta bulegoan.

### Elikagaien bilketa kanpaina

Azaroaren 27 eta 28an egingo da Gipuzkoako Elikagaien Bankurako urtero bilketa nagusia herriko saltokietan. Dei egiten zaie herritar guztiei kanpainan parte hartzera.

## IRUDIA

Argazkiak: Joseba Yarza



Herri Eguneko ekitaldian Inaxio Perurenak esku bakararekin altza zuen 220 kiloko harria, baina gero bizkarretik behera erori zitzaion.

## HAU AL DA ERAIKI DUGUN EUROPA?

**E**makume eta gizon; zahar, gazte eta ume, hilera luzeak osatuz, euripean, hotzak eta hezetasunak eragindako ikara kendu ezinean, aurpegi tristeaz bidertzetatik ihes doaz nora jakin gabe. Milaka pertsona dira, poliziaz eta metaluzko hesi edota kontzertinatzen eraikitako harresiak gainditu nahian; lokatzak, eurik eta haizeak umeldu eta suntsitutako kanpadendetan pilaturik, zenbait goseak eta medikuntza zerbitzurik gabe.

II Mundu Gerraz hitz egiten ari al gara?. Ez, gaurko Europaz dihardugu, XXI. mendeko herrialde garatu, moderno eta giza eskubide guztien bultzatzaile eta defendatzaile bezala azaltzen den gure gizarteaz ari gara. Baina azken urte hauetan dokumentaletan agertzen diren orduko irudi garratzak dirudite. Nola al da hau

Luis Guridi



posible?.

Azken hamarkadetan Ameriketako Estatu Batuak eta Europar Batasunak burututako interbentzioak Ekialde Hurbila eta Magreb-a desestabilizatu dute, Estatu Islamikoaren sorrera eta indartzea sortuz eta izugarritzko krisi humanitarioa zabalduz. Baina Europa, inongo erantzukizunik edukiko ez balu bezala portatzen ari da, krisi horren arduradunak eurak izango ez balira bezala. Baina zenbat eta gerra gehiago sortarazi orduan eta krisi humanitario handiagoak emango dira; zenbat eta hiriburu gehiago suntsitu orduan eta errefuxiatu gehiago inguratuko zaizkigu; zenbait eta pobrezia eta desberdintasun handiagoak eman, orduan eta jende gehiago egongo da prest beraien sorterritik alde egiteko.

Une honetan lehen egin beharrekoa errefuxiatuei baldintza duinak eskaintzea da, eskubidedun gizaki bezala tratatzea, eta hori da gure gobernuei eta Europar Batasunari exijitu behar dieguna. Baina hau ez da nahikoa, beste bake politikak abian jarri behar dira, armen salmentak debekatu eta kontrolatu behar dira – Europar Batasuna eta Alemania dira arma saltzaile handienak; beste mundu ekonomia ordena berria eraiki beharra dago pobrezia eta desberdintasunari aurre egiteko, horiek baitira gatazken oinarrian daudenak. “Ez dugu Europara joan nahi, gerra gera dezatela mesedez”, esaten zuen mutil gazte siriarrak batek Europarako bidean.

Badirudi, merkatuen eta kapitalen batasuna lortzeko Europa eraiki dugula azken 60 urte hauetan, eta giza eskubide eta eskubide sozialak ez daukatela tokirik bertan. Baina Europa, herrien eta gizartearen eremua da, edo ez du etorkizunik izango.



## BERDINTASUNA

**G**izon eta emakumeen BERDINTASUNARI buruzko topaketa batzuetan parte hartzeko aukera izan dut orain dela gutxi.

Topaketetako eztabaida nagusi edo sutsuenetako bat hauxe izan zen: zergatik iritsi garen matxismo egoera honetara, non emakumeak bere izatea galtzen duen. Emakumea beti egon da menpekotasun edo desabantaila egoeran gizonarekiko. Horren arrazoia amatasuna eta ama izateak dakarrena izan ote daitekeen aztertu genuen, baina nire ustez kontrakoa behar luke, hau da, amatasuna (bizitzaren sortzaile izatea) harro egoteko arrazoia izan beharko litzateke, errespetuz eta begirunez hartu beharrekoa.

Emakumeak ere, bere konplexutasun femeninoan, bigarren mailako rola onar-

Fernando Mendiguren



tu izan du, gizonezkoentzat utziz erabaki inportanteak.

Hezkuntza izan zen bileretan jorratu genuen beste gai nagusietako bat, eta hauxe ondorioa: pertsonetikiko errespetuan oinarritu behar da heziketa, izan sexu batekoa edo bestekoa. Oso inportantea, nire ustez.

Beste ondorioetako bat izan zen, pertsona guztiak pertsonatzat hartu behar ditugula, bereizketa barik, zeren, bestela, Gizonez eta Emakumez hitz egiten has ten garen momentu beretik ari gara inkontzienteki sexuak bereizten.

Erljio ezberdinek ere lagundu dute zatiketa hori sustatzen, azken aldian irekitxoagoak badira ere, itxuraz behintzat.

Azkenik, gaur egungo gizartean emakumeek (eta gizonezkoek ere bai) jokatu beharreko rolari buruzko jarraibide batzuk eman ziren. Hona hemen batzuk:

- Memoria gorde. /- Berdintasunaren aldeko kontzientziazioan eragin. /- Beste pertsona batzuekin sarean lan egin. /- Beste emakume batzuegana hurbildu. /- Pazientzia historikoa landu. /- Formazioan sakondu. /- Arlo honetan lanean diharduten beste gizonezkoekin batera lan egin. Kontua ez da beti aurka egotea, ekarpenak egitea baizik. /- Emakume teologo gehiago. /- Emakumei hitza eman. /- Beldurra galdu ... bidea bilatu. /- Ez beldurrik izan ... etorkizunari eta aldaketei. /- Koherentzia eta autokritika.

Lerro hauen bidez azpimarratu nahi dut PERTSONA GUZTIOK egin behar dugula lan PERTSONA egon dadin, bere giza kondizioan, beste kontsiderazio askoren gainetik.

## EMAKUMEONGANAKO INDARKERIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA

Izenburu potoloa hil ala biziko gai serio batentzako.

6 dira E.H.an indarkeria matxistak eraildako emakumeak eta oraindik ez da urtea bukatu.

Martxoaren 4an, Tarnosoren, ama-alabak alabaren bikote ohiak erailak.

Apirilaren 2an, Gazteizen, 29 urteko emakumea bere senarrak labanez erail zuen.

Abuztuaren 8an, Arrigorriagan, Leire, 34 urte, bere senarrak erail zuen kotxearekin harrapota.

Urriaren 3an, Erandion, Almeduna, 39 urteko emakumea, bere mutil lagunak erail zuen.

Urriaren 7an, Gizunen, 30 urteko emakumea bere bikoteak erail zuen.

Hori guztia emakumea izate soilagatik gertatzen da, emakume izatea arrisku faktore bihurtu da.

Haserre eta nazkatuta gaude emakumeenganako indarkeriak etenik ez duela ikusten eta

behar bezalako irtenbiderik ematen ez zaiolako.

Emakumeenganako indarkeria eta FEMINIZIDIOA (ze gure ustez ez dira erailketa soilak, emakumeak izateagatik gertatzen direlako) errotik kentzeko konpromezu politikorik ez dagoen bitartean, ez dugu gaitz hau gainetik kenduko, ez eta komunikabideek gai honek

behar duen garrantzia eman arte, ez bait diote trataera berdina ematen emakumeek jasaten duten indarkeriaren eta FEMINIZIDIOEN inguruko berri bati edo politikari, militar, kirolari, enpresari bati... gertatutakoa.

Ezin bukatu honekin pasa berri den udan, jaietan gertatutako erasoak aipatu barik: Ordiziko jaietan, San Ferminetan, Gazteizen, eta orain dela gutxi Elizondon gertatutako bortxaketa. Haserre eta nazkatuta gaude emakumeenganako indarkeriak etenik ez duela ikusten eta behar bezalako irtenbiderik ematen ez zaiolako

Eraso sexistaz betetako uda izan da aurtengoa.

### EMAKUMEONGANAKO INDARKERARIK EZ!

### ZINE KLUBA azaroak 26



Laura eta Matias ama semeak dira, etxetik alde egitera behartuta daude Fabianen (Matiasen aita eta Lauraren bikotea) biolentzia jasan ezinarenkin nazkatuta. Laura haurdun dago eta bizitzeko toki hobea baten bila hasi behar da. Kultur etxean, 20:00etan.

## ZAPATA GORRIAK Feminizidioaren kontra



Azaroaren 24an zapata zaharrak **gorriz** margotzeko tailerra egingo da Andraitzen lokalean (San Juan kale, 5) 18:00-20:00

Azaroaren 25ean Mejikoko Ciudad Juarez-en egin zan ekintza bat proposatu nahi diogu Oñatiko herriari. Ekintza hau 2009an Elina Chauvet mejikar artistak egin zuen **zapata gorriekin** Ciudad Juarez-en hiltzen ziren emakumeak ikustarazteko; ehundaka izaten ziren eta gehienetan haien zapatak aurkitzen zituzten bakarrik. Horregatik **gorriak, odola eta biolentziagatik**.

Gure proposamena Oñatiko plazan ahalik eta zapata gorri gehien jartzea izango da, 100 pare behintzat; beraz herritar guztiak animatzen ditugu ekintza hontan parte hartzera. Agian zapata **gorriak** ez ditugu izango, baina zapata zaharrak **gorriz** tintatzeko modukoak bai. Arte publikoaren instalazio honek nazioarteko ekintza ibiltariaren parte izan nahi du, eta Ciudad Juarez-era itzuliko da amaitutakoan. NOLA PARTE HARTU: ekarri zapata zaharrak azaroaren 23 edo 24an udaletxeko harrerara edo Andraitzen lokalera (San Juan kale, 5 / 18:00-20:00). Azaroaren 24an zapatak **gorriz** margotzeko tailerra egingo da Andraitzen lokalean (18:00-20:00). Azaroaren 25eko ekintza oso garrantzi-tsua izan daiteke azaroa ikustarazteko. Amaieran **elkarrateratzea** egingo da Foruen enparantzan, 18:30etan.

**NI moda**

**MODA BEREZIA**

Kale Barria, 12  
Tel. Faxa: 943 71 62 40

**CORTABARRIA**  
INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haztendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



Focus Kopan kotxe guztiak berdinak dira eta pilotaje maila neurtzen da

## Focus Kopa txapelketan hirugarren sailkatu dira Mikel Altuna eta Erik Fuente

Mikel Altuna (pilotoa) eta Erik Fuente (kopilotoa) hirugarren sailkatu dira RAC Vasco-Navarrok antolatzen duen Focus Kopan.

Lur gainean eta *rallysprint* eran jokutzen den txapelketa da; hau da, lehiakideek hiru pasada egiten dizkiote 12 kilometro inguruko bide-tarte bati, eta denboren batuketak erabakitzen du sailkapena.

Lehiaketa honetan kotxe guztiak berdinak dira (Ford Focus 1600/16V); hau da, denak baldintza berberetan lehiatzen dira eta, ondorioz, pilotaje edo gidatze mailak garrantzi handiagoa hartzen du.

Danera bost proba puntuagarri izan ditu aurtengo Focus Kopak: Los Arcos, Santillana del Mar, Baños de Rioja, Arnedo eta Ultzama. Oñatiarrek okerreko hankarekin ekin zioten txapelketari. Aurreneko proban kanbio-kaxa apurtu eta ezin izan zuten lasterketa amaitu. Gainerako lau probatan berriz, podiumean izan dira, eta garaipen bat ere lortu dute, Bañosen. Proba guztietako puntuak batuta, hirugarren sailkatu dira, baina bigarren postua ere esku-eskura izan dute.

Oso gustora daude egindako lanarekin. Aurten bigarren aldiz jokatu da Focus Kopa, baina oñatiarrentzat lehen esperientzia izan da, eta oso ondo moldatu dira kotxe berrira eta txapelketaren ezaugarrietara. Mikelek eta Erikek hiru urte daramate elkarrekin konpetitzen, eta datorren urtean ere Focus Kopan izango dira, garaipenaren bila.

Eskerrak eman nahi dizkiete asistentzian ibiltzen diren lagunei, tartean Mikelen bi anaiak, eta Oñati Garajeari, eskaintzen dien laguntzagatik.



Bost karreretatik lautan podiumera igo dira oñatiarrek



**MAPFRE**  
Oñati

Paritu kalea, 5  
20560 Oñati

Tel.: 943 78 12 65  
Faxa: 943 78 07 85

**ARRI** *Orain Oñatiarren zerbitzura!*

Industria Hornidurak  
Burdindegia

Goribar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18  
suministrosarri@hotmail.com



## ASIER PENABAD | Kiroldegiko Fitness gelako monitoreak

# “Erabiltzaile bakoitzaren helburuen arabera lan-plangintza bat prestatzen dugu 4 edo 6 asterako”

**M**artxoaz geroztik monitore zerbitzua dago kiroldegiko Fitness gelan. Bertako arduradun Asier Penabadek azaldu dizkigu zerbitzuari buruzko xehetasunak

**Martxoan hasi zineten zerbitzua ematen. Zer moduz hartu du jendeak?**

Ondo. Pozik gaude. Hasieran kostatzen zen pittin bat, baina orain jende ugari etortzen da aholku edo laguntza eske.

**Jende asko dabil gimnasioan, ezta?**

Bai. Oñatin kirola egiten duen jende kopurua ikaragarria da. Jaiak bukatu zirenetik batez ere, jende asko dabil, bai aerobikoen gunean eta baita indar gunean ere.

**Ondo erabiltzen al ditugu bertako aparailuak?**

Oro har, bai, baina beti da

### MONITORE ZERBITZUAREN EGUTEGIA

- **ASTELEHENA:** 15:00 - 19:00
- **ASTEARTEA:** 07:30 - 11:00 / 17:00 - 21:00
- **ASTEAZKENA:** Ez dago zerbitzurik.
- **OSTEGUNA:** 10:00 - 14:00 / 17:00 - 21:00
- **OSTIRALA:** 09:00 - 11:00

### TAILER TEORIKO-PRAKTIKOAK

AZAROAK 6, OSTIRALA (17:30-19:00)  
'TRX programak'



AZAROAK 14, LARUNBATA (10:00-11:30)  
'Luzaketa edo estiramendu programak'



AZAROAK 29, IGANDEA (10:00-11:30)  
'3. adinekonetzako programak'



AZAROAK 11 (17:30-18:30) ABENDUAK 12 (10:00-11:00) 'Bosu programak'



Bazkideentzat doan.  
Izena eman behar da fitness gelan, monitorearekin

gomendagarria orientabide batzuk ematea, batez ere muskulazio gunean; postura txarrak eta pisu edo progresio desegokiak erabiltzen baditugu, lesioren bat sortzeko arriskua egoten da.

**Zer eskatzen dizu jendeak?**

Erabiltzaile profil ezberdinak daude. Aurreneko aldiz etortzen direnak, medikuak esan die-lako, edo beraiek erabaki dutelako, eta hauentzat dena da berria.

Bestalde, lesio baten ostean gorputz-atal jakin bat landu edo indartu nahi dutenak daude; edo gorputza mimatzera eta fisikoa lantzerako datozenak; edo konpetitzen dabiltzanak eta entrenamendu espezifikoak behar dutenak...

**Eta zer eskaintzen diezu?**

Hasteko, inportantea da berba egitea, eta pertsona bakoitzak daukan helburuak eta historia-lan ezagutzera (gaixotasunak edo arazo artikularrak ote daukan...). Gero, bakoitzaren helburuaren arabera, lan-plangintza bat prestatzen diogu 4 edo 6 asterako, eta horren jarraipena eta ebaluazioa egiten dugu.

**Nori dago zuzenduta zerbitzua?**

Kiroldegiko bazkide guztiei. Badago, aholkua edo orientabidea eskatzen digun jendea, eta gero ariketak etxean egiten dituenak, kirolekora etortzeko aukerarik ez daukalako.

**Tailer espezifikoak ere antolatzen dituzte, ezta?**

Bai astean zehar eskaintzen dugun monitore zerbitzua osagarri, asteburuetan (ostiral arratsaldetan eta larunbat edo igande goiz batzuetan) ekintza bereziak egiten ditugu. Azaroan hiru tailer egongo dira, eta abenduan beste bi (ikusi taula).

**Ezer gehitserik nahi?**

Animatu egin nahi nuke jendea gimnasioa etortzera. Ez beldu-rik izateko; denontzako lekua dagoela hemen, eta laguntzeko gaudela gu.

# Artilea arte bihurtuta



Fieltrozko zapatilak, %100 Merino artilezkoak



Fieltroz egindako txori apaingarriak




Fieltroz egindako tulipadun lanparak, Merino eta Oñatiko latxa artilez egindakoak.



Fieltrozko plantxa kamisetak apaintzeko




Oñatiko berritxonaren artilearekin egindako gerruntze edo korpiñoa



Fieltroz egindako saski bat



Gantxiloz eta ehundegiz egindako tokillak.



Artilea kardatzen



Fieltroz bildutako xaboiak



Latxa artilezko matata

- ▶ Latxa eta Merino ardien ilearekin jantziak eta apaingarriak egiten ditu Conchi Morenok
- ▶ Artilea lantzeko teknika ezberdinak (Fieltroa, gantxiloa...) lantzeko ikastaroak ere ematen ditu

Orain dela zazpi bat urte deskubritu zuen Conchik artilea iruteko edo hari bihurtzeko aukera eta orduz geroztik "artilearekin" maiteminduta dagoela esan daiteke. Artile mota ezberdinekin esperimentatzen dihardu, argazkikoak bezalako produktu ezberdinak eginez, eta ikastaroak emanez, garai bateko irule edo gorularien ofizioa ezagutzera emateko.

"Ardi latxaren ilea gaur egun ez da ezertarako aprobetxatzen, eta pena da" adierazi digu Conchik. "Erropak egiteko pittin bat latza da, baina beste hainbat gauza egiteko (alfonbrak, gortinak, lanparak, apaingarriak...) oso egokia da, eta oso ondo geratzen da.

**EGUR-LAN**  
 AROZTEGIA  
 LIMASAT S.L.  
 BEREZAO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
 TEL./ FAXA: 943 78 14 59 - lin.obarsal@gmail.com  
 www.egur-lan.es

**smk**  
 san miguel kooperatiba  
 943 781 217  
 kale berria 8 - 20560 oñati  
 www.sanmiguel.coop

Latxa ardiaren ilea erabiltzeko, aurretik garbitu, lehortu, kardatu eta orraztu egin behar da. "Prozesu polita baina luzea da, eta hori da arazoa; garbitzeko eta kardatzeko prozesua mekanizatu egin beharko nuke produkzioa handitu ahal izateko". Beraz, oraingoz enkarguko lanak bakarrik egiten ditu latxa artilearekin.

Gainerakoan, Merino arrazako eta Finlandiako beste ardi mota baten ilea erabiltzen du lanerako. "Askoz ere leunagoa eta gozoagoa da, eta jantziak egiteko egokiagoa da".

Artilea garbituta erosten du eta bi modutara lantzen du: fieltro teknikaren bidez, orratzekin (puntua...), edo ehundegi (telar) bidez. Ondoko argazkietan ikus daitezke Conchik egiten dituen produktuetako batzuk (tokillak, lanparak, zapatillak...).

Conchik 'Lanatalan' enpresa sortu du eta bere webgunean ([www.lanatalan.com](http://www.lanatalan.com)) eta Amalur belarrendan eskura daitezke bere produktuak.

## Ikastaro eta tailerrak

Artilearekin lana egiteko teknikak (fieltroa, puntua, ehundegia, artilea irutea...) irakasteko tailerrak ere ematen ditu Conchik, helduentzat eta gazteentzat.

**Helduentzako** ikastaroak astelehen eta asteazkenetan (19:00-20:30) edota ostegun goizetan (10:00-11:30) izaten dira. Puntua eta fieltroa lantzen dute.

**Gaztetxo**en ikastaroak beriz, astearte, ostegun eta ostiral arratsaldetan izaten dira: 17:00-18:30. Fieltroa eta bestelako eskulanak lantzen dituzte: buzingintza, maché papera, enkuadernazioak, papiroflexia...

Horrez gain, **larunbat** goizetan 9:30-11:00 edo 11:30-13:00 tailer espezifikoak (ere antolatzen ditu. **Azaroaren 14an**, fieltrozko plantxa dekoratuak egiten irakatsiko du; **azaroaren 21ean**, tablet eta mugikorrentzako fieltrozko fundak egingo dituzte; eta **hilaren 28an**, hiru dimentsiodun fieltrozko plantxak egiten irakatsiko du.

Informazioa eta izen-ematea: [www.facebook.com/Lanatalan](http://www.facebook.com/Lanatalan) edo [lanatalanmoreno@gmail.com](mailto:lanatalanmoreno@gmail.com).



Ehundegiaren (telar) teknika ere erabiltzen du Conchik artilea lantzeko



## Poesia, musika eta irudiak Arantzazun

Azaroaren 14an 'Misterioari dario. Gizakia gogoeta-bidean' izenburuko poesia errezitaldi musikatua egongo da Aran-tzazuko Gandiaga Topagunean (18:00). **Andoni Salamerok** (olerkaria), **Jon Goenagak** (piano-jotzailea), **Pello Ramirezek** (biolontxelista) eta **Josu Marotok** (marrazkilaria) parte hartuko dute. Sarrera doan da, lekuak bete arte, baina izena ematea komeni da: 943716575 / [info@arantzazugandiaga.com](mailto:info@arantzazugandiaga.com).



## Txapelketari agur esan dio Mainer Arregik

Lan ederra egin ostean, final laurdenetan egin behar izan dio agur Mainer Arregik Gipuzkoako Bertsolari Txapelketari, ezin izan baitzuen aurrera egin joan den igandean Ormaiztegin jokaturako saioan. Hemeretzi urterekin, Gipuzkoako final laurdenetara inoiz iritsi den bertsolaririk gazteena da Mainer. Igandeko saioan ere ale ederrak utzi zituen; ofizioka, beharbada, ez zuen bere mailarik onena eman, baina kartzelakoan berea izan zen lanik ederrenetako eta txalotuenetakoa. Zorionak!

**HARALD LINDER**

**ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK**  
PERFORAK, LEDERAK, ILOK PINTURATEAK, ARBARK, PINTURAK LANAK...






BILBOAN: BILBOAN, 10010 BILBOA  
BILBOAN: BILBOAN, 10010 BILBOA  
BILBOAN: BILBOAN, 10010 BILBOA

**695 78 91 04 - 943 04 47 77**

**ANE MERTZERIA**



- Josteko zarak
- Lentzeria
- Umearu jantziak

Kale Barria, 54 DNATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. ONATI

## Hitzaldia: 'Vasco-navarro trenaren burdinbide zaharra'



**HIZLARIA:** Iñaki Varona Urbina, Gasteiz, 1967, IKA erakundeko euskara irakaslea.  
**EGUNA:** 2015eko azaroaren 26a.  
**LEKUA:** Oñatiko Udal Euskaltegia.

Hitzaldi honetara etortzen zaretenok aspaldiko tren haren xehetasun Hugari ezagutuko duzue, inaugurazio eta itxiera egunak, Bergarako Mekolalde auzotik Lizarraraino egiten zuen ibilbidea, Oñatirako adarra barne, toki bakoitzetik garraiatzen zituen produktuak eta abar.

Horretaz gain, lagun pilo baten istorioak, pertsonaia sonatu batzuen bizipenak, gertaera historiko bat edo beste, gerra bat, greba batzuk, estraperloa, errekadistak, istripuak, inaugurazioak, bisitak, lasterketak, apustuak ...

1967an, 40 urtean martxan ibili ondoren, azken bidaia egin zuen trenak, eta urte haietan gertatutako pasadizo batzuk ekarriko ditu hizlariak gogora, argazki zaharretan oinarrituta.

Kontu hauek guztiak entzun eta jakin gura izanez gero, etorri egun horretan euskaltegira.

## Haur liburutegiko Irakurketa-Kluba

4-6 urte arteko haurrei eta beraien gurasoei zuzenduta, irakurketa sustatzeko

Bularretik Mintzora kanpainaren baitan Irakurketa-Kluba izeneko ekimena antolatu du udal liburutegiak, Galtzagorri elkartearen laguntzarekin.

4-6 urte arteko haurrei eta hauen gurasoei zuzendutako saioak dira, Lur Korta ipuin kontalariak dinamizatuta. Gurasoek eta haurrek hainbat ariketa egingo dituzte; hala nola, irakurketa ozenak, liburuen aurkezpenak, irakurritako liburuei buruzko komentario eta gomendioak...

Irakurketa sustatzea, kalitatezko euskal bibliografia ezagutzea, gurasoen eta haurren artean irakurketa giroa sortzea, gurasoak ozenki irakurtzen trebatzea, eta haurrek giro lasaian irakurketaz goatzeari da helburua.

### HIRU SAIO

Hiru saio izango ditu Irakurketa Klubak: azaroaren 18an, eta abenduaren 2an eta 16an. Ordu eta erdiko saioak izango dira, 18:00etan hasita. Izena ematen dutenek hiru saioetan parte hartu beharko dute.



### HIRU SAIO

**IZANGO DIRA:**  
AZAROAK 18,  
ABENDUAK 2 ETA  
ABENDUAK 16

### PLAZA MUGATUAK

Gehienez 15 haurrek hartuko dute parte, beraien guraso edo hezitzailearen laguntzarekin. Haur liburutegian (16:30-19:30), telefonoz (943716111) edo emailaz (liburutegia@oinati.net) eman daiteke izena, azaroaren 13a baino lehen. Izen-emate ordena errespetatuko da. Informazio gehiago: [www.bularretikmintzora.org/irakurketa-klubak](http://www.bularretikmintzora.org/irakurketa-klubak)

## OSTEGUN KONTALARIAK /azaroak 26



Saioa Aizpurua  
ipuin kontalaria

6-10 urteko gaztetxoentzako ipuin kontaketa saioa

Azaroko Ostegun Kontalariak saioa 6-10 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta egongo da, eta Saioa Aizpuruak gidatuko du. Gonbidapenak hilaren 16tik aurrera.

## TERTULIXAN / azaroko saioak

Udal liburutegiko irakurleen klubak abian dira berriz ere



Euskarazko Tertulixan taldean (azarook 18 / 18:30) Uxue Apaolazaren 'Umeez gezurra esaten dutenetik' liburua aztertuko dute, Danele Sarriugarteren gidaritzapean. Gaztelerazkoan (azarook 25 / 18:30) Belén Gopeguiaren 'El lado frío de la almohada' nobela aztertuko dute, Ruben Ariasek gidatuta.



# Aloña Mendi Espeleologia Taldearen 'Urzulo' pelikula Bilboko Mendi Film Festival-eko sail ofizialerako aukeratu dute

Aurretik Oñatin estreinatuko da filma **azaroaren 13an**, kultur etxean (19:00), Oñatiko Mendi Astearen barruan

Xanti Ugarte Mugarzak zuzendu eta Aloña Mendi Espeleologia Taldeak (AMET) koordinatu duen 'Urzulo' pelikula Bilboko Mendi Film jaialdiko sail ofizialerako aukeratu da. Abenduan emango dute, baina data zehaztu barik dago oraindik. Dena den, aurretik Oñatin ikusi ahal izango dugu, azaroaren 13an, Mendi Astearen barruan.

'Urzulo' pelikulak izen bereko haitzuloan AMETek egindako esplorazioen historia kontatzen du. Batez ere, azken sei urteotakoak. Izan ere, 2010eko urrian aurrerapausu handia eman zuten AMETeko kideek Laurent Richard urpekari-espeleologo frantziarraren laguntzarekin. Ordura arte muga zen sifoi edo ur-putzuaren beste aldera pasatzea lortu zuten, galeria sare zabala deskubrituz.



Xanti Ugartek zuzendu du filma

Gaur egun, dagoeneko, 6 bat kilometro galeria esploratu dituzte; Aloña azpiko depositotik sartu eta Biozkornia pareraino. Oso zuzena da kobazuloa, eta horrek zaildu egiten ditu esplorazioak, sartu-irtenak egiteko bakarrik hamar bat ordu behar direlako. Horregatik, azken urteotako esplorazioetan bibaka egin eta gaua haitzulo barruan eman behar izaten dute, aurrera jarraitu ahal izateko.

Pelikulak 35 minutuko iraupena du, eta berau egiteko hainbat espeleologoren laguntza izan dute AMETekoek, bereziki Galdameseko Burniki taldekoena, eta euskaraz grabatu dute oso-oso. Trailerra interneten dago ikusgai: [https://www.youtube.com/watch?v=j1FW\\_ULdPQg](https://www.youtube.com/watch?v=j1FW_ULdPQg)



## MENDI HAMABOSTALDIA / AZAROAK 9-23

► **AZAROAK 10, asteartea, 19:30, Kultur Etxean**  
'Inkayak, Inken bailarak piraguan' Eneko Iartza kayakari abenturazaleak Andeetako ibaietan zehar egindako espedizioari buruzko ikus-entzunezkoa

► **AZAROAK 11, asteazkena, 19:30, Kultur Etxean**  
'Cho Oyu' Oier Plazaolak 2014an egindako espedizioari buruzko emanaldia.

► **AZAROAK 13, ostirala, 19:30, Kultur Etxean**  
'Urzulo' filmaren estreinaldia, eta 'Mendia eta Natura' argazki lehiaketako sari banaketa.

► **AZAROAK 17, asteartea, 19:30, Kultur Etxean**  
'Unai Mendia, eskalada mistoari buruz'. Harri eta izotz eskaladan abangoardia den eskalatzailearen emanaldia.

► **AZAROAK 19, osteguna, 20:00, Kultur Etxean**  
Zine-kluba: 'Valley Uprising' Iazko Bilboko Mendi Film jaialdiko film onena. Eskaladari buruzkoa.

► **AZAROAK 9-23, ERAKUSKETA Kultur Etxean**  
'Mendia eta Natura' lehiaketara aurkeztutako argazkiak.

## MENDI SAILEKO FEDERATU KANPAINA

2016rako federatu kanpaina abian jarriko du Aloña Mendik datozen egunetan. Aurtengo federatuei automatikoki berrituko zaie txartela. Federatu berriak eta estalduran egin beharreko aldaketak Aloña Mendiko egoitzan tramitatuko dira egun hauetan: **azaroak 16, 18, 24 eta 26 (19:00-21:00)**. Internetez egiteko aukera ere egongo da [alona.federatuak@gamil.com](mailto:alona.federatuak@gamil.com) helbidean, **azaroaren 25a** baino lehen.

Txartelak tramitatu ahal izateko, nortasun datuez gain, kontu korronte zenbakia, email helbide bat, federatu maila (Euskal, FEDME) eta nahi diren gehigarriak (Frantziar Pirineoa, mundu osoa, BTT, pistako eski alpinoa, snowboard...) behar dira.

Prezioak Euskal Mendi Federazioaren batzarrean onartu ziren eta bertako webgunean kontsulta datiezk. Aloña Mendik azpimarratu egiten du federatuta egotearen garrantzia.

## MENDI IRTEERA UROLA BAILARAN / azaroak 15

Aloña Mendik hile honetarako prestatu duen irteera Gipuzkoako Urola bailaran izango da, Zumarraga eta Azkoitia artean, *Izaspí* (972m) eta *Zamiño* (932m) tontorrik igota.

15km.-ko ibilaldia, da, 5 bat ordutan egitekoa. Irteera, goizeko 8etan, postetxe parean. Izena emateko epea: azaroak 12, Aloña tabernan. Bazkideak 10€, ez-bazkideak 13€, langabetuak 5€.

# JAKINGARRIAK

## > Rodrigo Mercado de Zuazola

**H**istorian izan den oñatiar Hilustreenetakoa bat dugu Rodrigo Mercado de Zuazola. 1460-70 artean jaio zen. Ochoa Ibañez de Mercado arrasatearra eta Elvira de Zuazola izan ziren bere gurasoak.

Maiorazkoa ez zenez, apaiz ikasketak egin zituen, 1480an ordenatu zelarik. Gero, Leridan eta Salamancan osatu zuen formazioa, Zuzenbide zibil eta kanonikoa ikasiz.

Salamancako egonaldiaren ostean hutsune bat ageri da bere biografian, eta 1499an azaltzen zaigu Valentzian, doktore titulua eskuratuta, eta Inkisidore karguan. Badirudi, orduan izan zuela Fernando II.a errege katolikoaren gortearen ingurumarietan sartzeko aukera, eta orduantxe osatu zuela bere dirutzaren zati handi bat, judutarrei konfiskatutako ondare-sunei esker.

Ordutik aurrera kargu eta ohore berriak bereganatu zituen Rodrigok. Fernando katolikoaren kontseilaria izan zen eta koroarako bereganatu berria zuen Nafarroako gobernadore izendatu zuen 1512an, Mallorkako apezpiku izendatu zuten urte berean.

Fernando erregea hiltzean apaldu egin zen pittin bat Rodrigoren itzala, baina berehala



Rodrigo Mercadoren hil-kapera parrokian

**Oñatiko hiru monumentu baliotsuenetakoa bere mezenasgoari esker eraiki ziren: parrokiako klastroa, Pietatearen kapera, eta Sancti Spiritus unibertsitatea**



Rodrigo Mercado, Antonio Valverde

'Ayalde'ren margolanean

berreskuratu zuen ospea Carlos I erregeak Granadako kantzileritzako presidente kargua eman zionean 1525ean. Bost urte egin zituen bertan, eta garai horretan ekin zion Oñatiko Mikel Goi-ingeruaren parrokiako klastroa eta Pietatearen kaperako bere hilobia eraikitzeko lanei, Pedro Velez de Guevara kondearen baimena lortu ondoren.

1530ean Avilako apezpiku izendatu zuten, eta bertan bizi izan zen heriotzako egunera arte, 1548ko urtarrilaren 29an. Garai horretan egin zuen bere obrarik garrantzitsuenen Oñatiri dagokionez, Sancti Spiritus Unibertsitatea eraikiz, Paulo III aita santuarengandik baimena jaso ondoren 1540ean.

Formazio handiko humanista izan zen Rodrigo, erlijio eta lege gaietan ez ezik, astronomia, mitologia eta kultura klasikoko gaietan ere aditua zen, eta jakinduria hori bere herritarren artean zabaldu nahi izan zuen.

Urte batzuk lehenago Napolin egona zen Rodrigo, eta Italiako Ernazimenduak liluratuta etorri zen handik. Bere mezenasgoa erabakiorra izan zen Berrizkunderako estiloak Gipuzkoan izan zuen sarrera goiztiarrean.

**ARANBURU ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO GUZTIETAKO ALTZARIAK**

**LANPARAK, TAPIZAK, KORTINAK**

**S distira**  
estetika zentrua

- Manikura eta Pedikurak
- Solarluma
- Gorputzeko Tratamenduak
- Aurpegiako Tratamenduak
- Depilazioa

San Lorenzo 4 behea | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: estetika.distira@gmail.com

## HISTORIA TXATALAK

‘Agur Jaunak’  
eta Oñati

>Azkenaldian berbagai eta eztabaidagai izan dugu *Agur Jaunak* euskal kantu herrikoia, EHUren ikasturte hasierako ekitaldian hitzak aldatu zizkietenetik. “*Agur Jaunak/ eta Andreak/ Agurt' erdi/ Danak berdinak/ einak gire/...*” abestu zuten, gizonak ez ezik **andreak** ere aipatuz, eta **Jainkoa** aipatu gabe.

Horren harira, gogoratu behar da, gaur egun harrera ekitaldietan eta omenaldietan abesten dugun *Agur Jaunak* kanta solemnea Oñatin abestu zela ofizialki lehen aldiz 1918ko irailaren 1ean, Euskal Ikaskuntzen I. Biltzarraren hasiera ekitaldian. Foruen enparantzan abestu zuten, Alfonso III.a erregea, Gipuzkoa, Araba, Bizkaia eta Nafarroako aldundietako ordezkariak, eta Gasteiz, Iruña eta Baionako apezpikuak bertan zirela.

Ezezaguna da *Agur Jaunak* abestiaren egilea. Badirudi, XIX. mendean sortua izan zela. Nonbait, Gipuzkoako pilotariak Lapurdira egin ohi zuten bisitaldiaren inguruan abesten omen zuten. Oñatiko ekitaldirako Aita Donostiak armonizatu zuten.

## Zañartu

> Jerardo Elortza

Jende ugari ezagutzen du **Zañartu**, oñatiarrak nahiz inguruko herrietakoak ia egunero igarotzen baitira auzo horretatik paseoan; edota **Usakoko presa** aldera freskatzera hurreratzen direlako udaldian. Baina esango nuke horietako askok ez dutela jakingo zehazki zeintzuk diren **Zañarturen mugak**, non hasi eta non amaitzen den, alegia. Egia esan, bertakoa izan barik, ez da erraza horretaz jabetzea.

Torreauzo pasatuta, **Mugar tzakoa** baserria da auzoko lehenengo etxea. Eskumarantz, aldapan gora **San Julian** eta **Larraziar aldera**, zerrenda zabal samarra dauka, goiko hegian Aretxabalarekin muga egiteraino. Ezkerretik, ordea, **Artixa erreka** erabakitzen ditu **Zañartu** eta **Garagaltza** auzoen arteko zedarrak. Hartara, Benturena, Zuazola, Iraban eta Lamiategi baserriak Garagaltzakoak ditugu; baina hauek ez ezik, baita erreka bezaladetik aurkitzen diren **Altzingoa** eta **Albarritza** biak ere.

**Erreka ondoko lurrak lauak eta aberatsak** dira. Soro eta ortu ederrak ziren han. Gaur egun baratzeek jarraitzen dute, eta hauekin batera **mahastiak nagusitzen ari dira**, aspaldiko sasoietan legez. Oñatin, jakina denez, txakolingintzak indarra hartu du

**Baserri eder eta lur aberatsen artean mahastiak nagusitzen ari dira**

azken hamarkadetan, eta ekoizpenaren zati garrantzitsu bat auzo honetakoa edota ingurukoa dugu.

Zañartun etxe eta baserri asko izan ez arren, zenbait azpimarragarriak ditugu eraikuntza edo historiari dagokienez: **Zelaakoa**, **Upaingoa**, **Largokoa**, **Etxenau-si**, **Belaskoa** eta abar. Hainbat desagertu ere egin dira: **Txillo-tegi**, duela mende batzuk, eta **Ipentza** eta **Jardingoa** orainago, XX. gizaldiaren bigarren erdialdian. Auzo honetakoa zen XVIII. mendean Txilek eduki zuen agintaririk gogorrenetakoa: **Luis Manuel Zañartu** korrejidorea; askoz geroago etorri zen hona **Teresa Elortza**, **Frantzisko Elortza** jeneral aroztar ospetsuaren alaba, eta auzorako jasoarazi zituen 1906an **San Krutz ermita** eta alboko eskola, fundazio baten bitartez.

Zañartukoak genituen, halaber, XX. mendean Oñatiko industriagintzan jardundako ekintzaile garrantzitsu batzuk: besteren artean, **Upaingo Jabier Zelaia** eta **Usakoko Migel Enparantza**, 1922an guardasol-fabrika jarri zutenak **Kale Zahar**rean eta ondoren pila-enpresa leku berean, kaletik **Etxenau-sira** ezkondu-tako **Elias Galdosekin** batera. Urte askoan **Tximist** bezala ezagutu zen, baita gerraostean **Ibarrara** aldatuta gero ere, nahiz eta harrezkero **Cegasa** eta beste izen batzuk izan dituen.

**ARRIZABALAGA**  
Aroztegia

**PAKITA**  
Altzariak

Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

BUNALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTINGAK • NEURRIRA EN POTRATU, RIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**  
Okindegia


Larriño buzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Bizirikiko egia: [www.irazola.com](http://www.irazola.com)

# AGENDA

# 11 AZAROA

## BENITO LERTXUNDIREN KONTZERTUA AZAROAK 28



## ÕNATIKO 37. MUSIKEGUNAK

### MUSIKA EKITALDIAK

#### > AZAROAK 20 / 17:00

MUSIKA ESKOLAKO ikasleen kalejira herriko kaleetan. Gero (17:30) jaialdia eta txokolate jana Berdura plazan

### TAILERRAK

#### > AZAROAK 11 / 18:00

'Õñatik azken hamarkadetan jasan duen errepresioa'. Hausnarketarako tailerra Antixena gaztetxean.

#### > AZAROAK 18 / 18:00

'Eusko Jaurlaritzaren Bake eta Bizikidetzeta Idazkaritzaren Oñatiri buruzko txostenaren irakurketa kritikoa'. Antixena gaztetxean.

#### > AZAROAK 28 / 10:00

'Euskararen arnasmuneak'. UEMAK antolatutako hausnarketa tailerra. Gosaria egongo da. Gaztetxean..

### ODOL ATERALDIA

#### > AZAROAK 6 / 17:30-19:30

Hil honetako odol ateraldia Txantxiku ikastolako aretoan.

#### > AZAROAK 8

##### SANTA ANA 19:00

EASO abesbatza. Xalba Rallo zuzendaria, eta Kirmen Uribe poeta. Sarrera: 5€

#### > AZAROAK 15

##### SANTA ANA 19:00

Downhill filma. Javier Perez de Azpeitia pianoa. Sarrera: 5€

#### > AZAROAK 22

##### SANTA ANA 19:00

EASO hirukotea. Miren Urbietza sopranoa, Erlantz Fernandez tronpeta, eta Arkaitz Mendoza organoa. Sarrera: 5€

#### > AZAROAK 28

##### KIROLDEGIAN, 22:00

Benito Lertxundiren kontzertua. Sarrerak aurrez (15€) Txokolateixan eta *bibe.me* atarian salgai. Lehiatilan 18€tan.

## KONTZERTUAK

#### > AZAROAK 20 / 22:00

'SUMISION CITY BLUES' talde



gasteiztarraren kontzertua Antixena gaztetxean. Punk-rock eta bluesaren mundutik datozen bost lagunek osatu zuten taldea 2009an. Zuzeneko oso indartsua dute. Denboraldi batez lozorroan egon ostean, bueltan dira 'Golden' izeneko lan berria aurkezten.

#### > AZAROAK 27 / 22:00

'2ZIO' eta 'REVOLTA PERMANENT' taldeen kontzertua Antixena gaztetxean. Herriko hiru gaztek sortu zuten '2ZIO' taldea 2011n, ilusioak, rapa eta euskara uztartzeko asmoz. Sentitu, salatu, bizi eta maite dutenaren emaitza da '2ZIO'. Iraillean kaleratu zuten iraupen luzeko bigarren diskoa.

#### > ABENDUAK 4 / 22:30

'TXAPELPUNK' eta beste talde gonbidatu baten kontzertua Gaztelekuan.



### + INFO

Eskaneatu ezazu QR kode hau agendako deialdi guztiak ikusi ahal izateko.



**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN  
TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
Telefonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



## ANTIUMANO TALDEAREN CD-AREN AURKEZPENA

### JAIALDIA

> **AZAROAK 7 / Egun osoan**  
LARRAÑA AUZOARAEN  
EGUNA. 11:30 Barazki erakus-  
keta Larrain Gain elkartean,  
eta janari-kontserbei buruzko  
hitzaldi-erakustaldia. Jarraian  
luntxa. 17:00 Umeentzako  
gaztaina erreak; 21:00 Afari  
merienda, Laja aita eta Mikel  
trikitilariak alaituta.

### MIKOPOTEOA

> **AZAROAK 7 / 18:00**  
MIKOPOTEOA ARANTZAZUN.  
Hitzaldia Gandiaga topagu-  
nean, eta ondoren mikopo-  
teoa Arantzazuko jatetxeetan.

### > AZAROAK 21 ANTIXENA GAZTETXEAN

*Golpe de Estado, CC627*  
eta *Sospechosos*-eko kide  
ohiek sortutako  
*Antihumano* taldeak CDa  
aurkeztuko du. Punk-  
Hardcore azkarra  
jorratzen dute.  
eRockalden sortutako  
*Gela Berezia* eta *Murdock*  
*murder* taldeek ere  
girotuko dute gaztetxea.

### OHAR ETA DEIALDIAK

> **BERTSO TXAPELKETARAKO AUTOBUSA ETA SARRERAK.**  
Abenduaren 19an Donostian (17:00) jokatu den Gipuzkoako  
Bertsolari Txapelketako finalera joateko autobusa antolatu du  
Oñatiko Bertso Eskolak. Txokolateixan daude salgai txartelak  
10€-tan. Finalerako sarrerak (20€) ere bertan eros daitezke.  
> **UDAL EGUTEGIRAKO ARGAZKI ETA ILUSTRAZIOAK**  
2016ko udal egutegia herritarren argazki eta ilustrazioz osatu  
nahi du Udalak. Oñatiri edo euskarari erreferentzia egiten dio-  
ten irudiak izan behar dute. Azaroaren 9a baino lehen bidali  
behar dira [euskera@onati.eus](mailto:euskera@onati.eus) helbidera.



# ZURICH

M<sup>o</sup> del Mar Urrutia Nagueruela

Mocxon Kalea 5 behea  
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorts: 620 77 66 20

### LIBURUTEGIKO BERRIENAK



CD Musika  
"Coming home"



CD Musika  
"Little victories"



Liburua  
"La gran brecha"



Liburua  
"Voces de Chernóbil"



Haur liburua  
"Biziaren historia"



Haur liburua  
"Hartz aita etxera dator"

### MERKATU TXIKIA

- > **Ugarkalden Babes Ofizialeko Etxebizitza** salgai garaje eta trastelekuarekin. 3 logela, 2 komun, sukaldea, sala eta 2 balkoi. Prezioa: 152.200€ (Hornikuntza/altzariak negoziagarri). Deitu: 685 706 636.
- > **Duplexa** (150m<sup>2</sup> baliagarri) salgai erdialdean; 17,50m<sup>2</sup>ko garaje itxia eta 100m<sup>2</sup>ko lorategia. Prezioa: 325.000€. Deitu: 609 074 127 / 649 887 917. .
- > **Pisua** (65m<sup>2</sup> ) salgai Mikel Aozaraza kaleko 11 zenbakian. 2 logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Garaje plazarekin. Altzariz hornitua. Interesatuek deitu: 669 451 040
- > **Garajea** salgai Ugarkaldeko 5-6 atarian. 20.000€. Deitu: 647 515 257 / 610 751 017
- > **Alokairuan** pisu bila dabilen Oñatiko familia bat gara. Interesatuok deiru zenbaki honetara: 697 751 230.
- > **Garajea** alokatzen da Errekalde auzoko 17. portalean. Neurriak: 4,45 x 2,70. Deitu: 667 957 848
- > **Etxebizitza** salgai, Oñatiko erdigunean. 68m<sup>2</sup>, bi logela, komuna, sukaldea eta egongela. Guztiz hornituta. Prezioa: 179.000€. Deitu: 659 720 664.

**Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 OÑATI**

Tel.:943 78 20 72 | Posta-e: [kontzejupetik@onati.eus](mailto:kontzejupetik@onati.eus)

### GUARDIAKO FARMAZIAK



- ANDUAGA San Lorentzo 3, 943 78 21 16**  
Azaroak 9, 10, 18 eta 19, eta abenduak 4, 5, 6, 7 eta 8.
- IGARTUA Kale Zaharra 1, 943 78 01 22**  
Azaroak 11, 12, 20, 21, 22 eta 30, eta abenduak 1.
- GARATE Kale Barria 42, 943 78 05 58**  
Azaroak 5, 13, 14, 15, 23 eta 24, eta abenduak 2 eta 3.
- JULDAIN Kale Barria 6, 943 78 11 28**  
Azaroak 6, 7, 8, 16, 17, 25, 26, 27, 28 eta 29.



# ITTEN BAT

(\*) Itten: arrastua, pistia

## Zer xabillagu/xabiñagu?

Aitta-semiak baxagozak barriketan etxeko sukaldian, eta aittak haxe esan txak semiari:

- *Kalian hoiala abadia ikusten badok agurtu, eta berarekin berbetan hasten haizenian esan egixok: 'jaun eta berori', 'jaun eta berori'.*

Hori entzun eta gero, baxoiak mutikua beste egun batian kaletik eta, han nun ikusten dauen abadia Txurrukaneko arkupetan.

Hurreratu dok eta, agurtu ondoren, 'braust' bota txak:

- *Aittak esan xostak hiri 'jaun eta berori' esateko, 'jaun eta berori'.*

Abadiak hori entzun ebenian, **jo ta ma geratu zuan** (!!??), zer esan ez ekixela.

('Jo ta ma geratu' = harrituta edo txundituta geratu; harri eta zur edo zur eta lur geratu)



## Goguan hartzekuak

### FETXIA ZELA ESKRIBIU

Fetxia eskribituko molde honeik proposaitten dittu Euskaltzaindikak:

*Oñati, 2015eko zemendixaren 16xa.*

*Oñatin, 2015eko zemendixaren 16xan.*

*Oñati, 2015eko zemendixak 16.*

Edo, aposiziñuan:

*Gaur, zemendixak 16, lehenengo ikasgaixaren ebaluaziñua egingo dogu.*

*Bixar, zemendixak 17, esamiñen notak urtengo daue.*

Beste ebalera hau be politta eta goguan hartzekua da:

*Hil honen 8xan kaza-denporia zabalketan da eta martixaren 15ian itxiko da*

*Hillaren 10etik datorren hillaren 20ra arte neguko merkealdixak izango dira.*

## Hutsuniak bete

1. Lau lagun gara eta birendako lekua bakarrik dago. .... biharko dogu kanpuan zein geraketan dan erabagittetko.
2. Egun darian burruka batian! ..... eragitten dostai ume honeik!
3. Ipar-haizia dabil eta igarten da. Eztot jertserik ekarri eta ..... nago.
4. *Teleberri* aurkezten dauen andriaren ..... hartzen xat neska horri.
5. Ume jaixo barri baten antzera dakotzu azala, .....

Aukerak: ernegau / taixua / guri-gurixa / zotz egin / hozkirrittuta /

## Beste modu batera esan

1. Ezer be ez (jakin/esan): .....
2. Umia nekiaz erreta edo errendiuta egon, ondo ezian egon: .....
3. Ganora asko bagia, gizajua / Errukixa emuten dauen pertsonia: .....
4. Lo oso ariña: .....
5. Leher egindda egon: .....

Aukerak: dontsua / mankauta / erbi-lua / taka-takan hasi / tautik be ez / irrittu egon

## EUSKERAZ EGOGI

**\*si inbiu ...;**

**\*si eztozu egin ezebe ...**

Harriduria edo sospresia adierazten dau erderazko **si** horrek. Erderazko **¡Pero si...!** -ren balixokidia da. Ikusi degigun hori esateko dako-gun modu batzuk:

*¡Si no te habia conocido! =*  
-Etzaut, baiña, ezagutu!  
-Etzaut ezagutu, baiña!  
-Ezagutu al zaut, ba!  
-Etzaut ezagutu-eta!

*¡Si no has hecho nada todavía! =*  
-Orainddiok ezer be eztozu egin, baiña!  
-Orainddiok eztozu ezer be egin, ba!  
-Ezer egin al dozu, ba!  
-Ezer be eztozu egin-eta!  
[...egin dda]

*¡Si nos has tocado a nosotros hacerlo! =*  
-Geuk egin bihar dogu, baiña!  
-Geuk eztozu egin bihar, ba!  
-Geuk egin bihar dogu-eta!

**Beste modu batera esan**

1. Tautik be ez
2. Irriitu egon
3. Dontsua
4. Erbi-lua
5. Mankauta

**Hutsuniak bete**

1. Zotz egin
2. Ernegau
3. Hozkirrittuta
4. Taixua
5. Guri-gurixa

**ERANTZUNAK**



# Kanposantuak Oñatin

**D**omu Santu eta Animen egunak pasau barri diran honetan, gure herrixan izan diran hillerrixen gaiñian zertxobait esatia egogi etorri leikiela pentsau xaku. Guk kanposantua Garagaltza auzuan, Urrutxu aldian, ezagutu dogu, eta gure guraso nahiz aittajaan-amandriak be bai. Baiña beti ezta hola izan. Garai batian hilledakuak eliza inguruan edo eliza barruan lurperaketan ziran, eta ohitura horrek luzaruan iraun eben. Arrazoi higienikuak zirala-ta, difuntuak elizetatik kanpora enterraitteko asmua eukain agintari politikuak XVIII. gizaldira orduko, baiña hori etzan XIX.aren hasierara arte gauzatu. Oñatin hiru parrokixetan lurperaketan ziran herrittarrak: kaleko San Migelen, Araozko San Migelen eta Urruxulako Andra Marin; baiña, parrokixia izan barik, Bidaurretako eliza barruan be sartu izan ziran hilledako oñatiarrak, hango zurezko sepulturak erakusten doskuen lez.

Eliza barrutik atarateko asmuori 1807ttik aurrera buruketan hasi zan. Kontuan izan bihar da hurrengo urtian Napoleonen inbañua heldu xakula eta giro nahasi haretan lurperatuko zittuain lehenengo hilledakuak Goribar auzoko Santa Katalina ermitta onduan moldau zan kanposantu barrixan. Itxuria danez, ha etzan hartarako oso leku aproposa: txikitxua, zabalketako aukera asko barikua, eta kamiño nagusittik ermittaraiñoako aldapa motza baiña gogorra eukana. 1850eko hamarkadan leku barri baten billaketari ekin otsain kontzejuko arduradunak. Azkenian Garagaltza auzuan moduketia pentsau zan, San Juan ermittia eta Urrutxu baserrixaren artian daguen pendiz xuabe antzeko horretan. Santa Katalinako kanposantu zaharraren aurrez-aurre, hain zuzen be. Etzan obra makala izan: 1863tik aurrera, lur-zatixaren aukeraketia eta erosketia erabagi ziran; pittinka igoten eben bide-arbolada bat egin zan ospital-unibersidadetik aldetik goraiño; eta lur-sail horren mugen barruan hillerri barrixa eraiki zan, Pedro Belaunzaran arkitektuaren ardurapeian.

Dana dala, obrak etziran berihela akabo, bestiak beste, tartian azkenengo karlistadako gerratia egon zalako. Erdiko bi kale nagusixenak alkarketan diran ardatzian harenarrizko kurtze haundi bat jaso zan, oiñeko lau aldetan esaldi honeik dittuala orduko ortografian: *Becatuaren ondorena gurutzetic salvamena / Gorputza emen baida zarima nun ote da? / Año 1875 / Eriotza beti buruan saria guero ceruan*. Seguru, asko Oñatiko leku publiko batian egindako euskerazko inskripziñorik zaharrenetarikuak izango dira. Estilo neoklasikuan eraikittako ate-sarrerria eta parian gorago daguen kapillia, berriz, 1880xan jaso ziran, Casto Zabala eta Pedro Jose Astarbe arkitektuen planuen arabera. Urte hareittan jarrittako hillobi banaka batzuk geldiketn dira oraindiok kapilliaran ezker-eskumetan eta beste tokiren batian.

Kanposantu barri hori ehun bat urtian errendidu zan neurri horrein barruan. Baiña 1966xaz ezkeroko ekin xaten eskumaldeko zabalketa-lanairi; eta 1974tik aurrera ezkerrekoaldekuari, hainbat epetan burutu zana. Gaurko fotografia 1983ko Domu Santuko egunekua da eta obren azkenengo epiaren inauguraziñuari dagokixo. Bertan agiri dira elizako agintarixak, parrokixako koru-kantoriak, hainbat oñatiar eta gorago aittatu dan kurtzia euskerazko idazkixakin.

J. E.

Argazkixa Andres Arlanzonek ataratakua da eta Oñatiko Udal Artxibuan gordeten da. Eskerrak emun biharrian gagoz Izar Salaberriri eta Xabier Zelaiari eskuratu doskuen argibide eta samurtasunengatik.



# COINBROKER

## ASEGURU ARTEKARITZA CORREDURIA DE SEGUROS

25 urteko esperientzia sektorean  
25 años de experiencia en el sector



# BADAKIZU ASEGURU ASKO URTE BUKAERAN AMAITZEN DIRELA?

ERREBISATU ZUREAK ETA KONTSULTATU GUREKIN, KONPROMISORIK GABE!



## BIZITZA-ASEGURUA

- *Prezio hobea: gure deskantuak aplikatuz orain duzuna baino %10 -%40 merkeago zhurtzen dizugu kasu guztietan.*
- *Baldintza eta estaidura berdinak edo hobek.*



## HERIOTZA-ASEGURUA

- *Hemengo ehorztetxeekin egiten dugu lan, zerbitzu berdinak eskainiz.*
- *Hurrengo urtetako primak kalkulatu ditzakezu pidez aurretik.*
- *Asistentzia Mundiola barne.*



## OSASUN-ASEGURUA


**Merkatuko zerbitzu eta preziorik onenak.**

*Ondorengoak barne:*

- *Dentista zerbitzua*
- *Tarifa nibelatuak*
- *Kapagarik gabe*
- *Deskantu familiarak*

**Ondoko taulan kontsultatu zure osasun aseguruaren baldintza eta prezioak:**

Adina	1 Aseg	2 Aseg	3 Aseg	4 Aseg edo +	Familia ugoria
0 - 35	51,09 €	42,58 €	42,58 €	38,32 €	35,19 €
36 - 50	58,95 €	49,12 €	49,12 €	44,21 €	41,76 €
51 - 55	78,60 €	65,50 €	65,50 €	58,95 €	55,67 €
56 - 60	78,60 €	65,50 €	65,50 €	58,95 €	55,67 €



**COINBROKER**  
ASEGURU ARTEKARITZA  
CORREDURIA DE SEGUROS

**Arantzazuko Ama Kalea, 9**  
**20560 Oñati / Gipuzkoa**

### MOTA GUZTIETAKO ASEGURUAUAK

*Etxebizitzak, osasuna, bizitza, automobilak (autoak, motorak, auto-karabanak, ...), heriotza, komertzioak, pentzio-planak, aurrezpen-planak, bidai aseguruak, ETEek, eta aber.*



943 089006



[www.gipuzkoa.coinbroker.eus](http://www.gipuzkoa.coinbroker.eus)



[oinati@coinbroker.eus](mailto:oinati@coinbroker.eus)